Gutxien baloratu direnak, berriz, hauek: Nire bikotekidea beste batekin mezuak bidaltzen dabil, beste pertsona batek erakarria sentitzen da eta beste batengan pentsatuz masturbatu da.

45-64 adin tartean daudenak beste adinetan baino gutxiago erlazionatzen dute *sexua* desleialtasunarekin.

Gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago lotzen dute *mezuak bidaltzen ibiltzen* egotea desleialtasunarekin; 7,8ko aldearekin. *Sexuari* dagokionez, ordea, emakumeek gizonek baino gehiago identifikatzen dute desleialtasunarekin.

G55 - Aukera hauetatik noiz gertatzen da zuretzat desleialtasuna?

Taula 4.37

| | Guztira % | Adina | | | Sexua | | Joera sexuala | | | Bikotekidea egun | | |
|--|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|---------------|------|--------|------------------|--------|------|
| | | 18-29 | 30-44 | 45-64 | Emak. | Gizon | Hetero | Homo | Bisex. | Ibia | Irekia | Ez |
| Nire bikotekidea beste pertsona batek erakarria sentitzen da | 10,8 | 10,6 | 9,7 | 12,4 | 11,2 | 10,5 | 10,3 | 19,4 | 8,7 | 9,8 | 10,6 | 12,4 |
| Nire bikotekidea beste batengan pentsatuz masturbatu da | 5,4 | 8,5 | 3,4 | 5,1 | 5,8 | 5,1 | 6,0 | 2,6 | 1,5 | 5,1 | 3,6 | 6,3 |
| Nire bikotekidea beste batekin mezuak bidaltzen dabil | 19,9 | 21,9 | 25,6 | 10,8 | 23,7 | 15,9 | 20,6 | 17,6 | 14,3 | 20,7 | 12,5 | 19,6 |
| Beste batekin musuka ibili da | 55,8 | 68,2 | 64,3 | 33,7 | 62,2 | 49,3 | 57,9 | 41,2 | 45,6 | 56,5 | 36,6 | 57,9 |
| Nire bikotekideak beste batekin sexu harremanak izan ditu | 75,7 | 82,8 | 82,2 | 61,2 | 77,8 | 73,6 | 76,9 | 68,0 | 69,2 | 77,7 | 54,8 | 76,0 |
| Nire bikotekidea beste batekin gelditzen da noizbehinka sexurako | 77,7 | 82,5 | 80,5 | 69,9 | 80,6 | 74,8 | 78,4 | 78,8 | 69,3 | 80,7 | 61,8 | 75,2 |
| ED/EE | 9,5 | 6,5 | 7,1 | 15,1 | 9,2 | 9,8 | 9,1 | 9,0 | 13,9 | 7,1 | 16,2 | 12,4 |

Iturria: Kaixomaitia.eus

Taula 4.38

| | Guztira % | Egoera zibila | | | | | Denbora egungo egoera zibilean (urte) | | | | | |
|--|-----------|------------------|-----------------|----------|---------------------------|-------|---------------------------------------|------|------|------|-------|------|
| | | Bikotekid egabea | Bikotekid eduna | Ezkondua | Dibortziatua edo banandua | Beste | <1 | 1-2 | 3-5 | 6-10 | 11-20 | >20 |
| Nire bikotekidea beste pertsona batek erakarria sentitzen da | 10,8 | 11,8 | 9,4 | 11,3 | 13,8 | ,0 | 7,3 | 12,3 | 11,0 | 10,0 | 12,6 | 9,9 |
| Nire bikotekidea beste batengan pentsatuz masturbatu da | 5,4 | 7,3 | 5,7 | 4,5 | 2,3 | 2,5 | 7,5 | 5,3 | 8,0 | 4,8 | 1,2 | 7,0 |
| Nire bikotekidea beste batekin mezuak bidaltzen dabil | 19,9 | 19,6 | 22,6 | 17,8 | 17,9 | 14,9 | 23,5 | 24,4 | 26,1 | 23,1 | 8,9 | 15,1 |
| Beste batekin musuka ibili da | 55,8 | 61,1 | 61,3 | 47,8 | 48,2 | 29,6 | 62,0 | 68,8 | 62,0 | 67,0 | 35,0 | 43,1 |
| Nire bikotekideak beste batekin sexu harremanak izan ditu | 75,7 | 76,8 | 83,5 | 65,8 | 78,2 | 58,7 | 75,3 | 82,5 | 77,2 | 88,7 | 70,0 | 65,2 |
| Nire bikotekidea beste batekin gelditzen da noizbehinka sexurako | 77,7 | 78,6 | 83,6 | 74,8 | 66,8 | 62,5 | 78,0 | 82,3 | 76,8 | 86,4 | 76,6 | 71,4 |
| ED/EE | 9,5 | 8,8 | 5,1 | 11,9 | 18,2 | 9,8 | 10,7 | 6,6 | 11,7 | 1,8 | 7,6 | 16,3 |

Iturria: Kaixomaitia.eus

Taula 4.39


| | Guztira % | Zoriontasun maila afektiboa momentu honetan | | | Zoriontasun maila sexuala momentu honetan | | |
|--|-----------|---|---------------|---------------------|---|---------------|---------------------|
| | | Oso baxua edo baxua | Erdipurdi koa | Altua edo oso altua | Oso baxua edo baxua | Erdipurdi koa | Altua edo oso altua |
| Nire bikotekidea beste pertsona batek erakarria sentitzen da | 10,8 | 15,8 | 14,7 | 7,8 | 13,4 | 10,7 | 9,7 |
| Nire bikotekidea beste batengan pentsatuz masturbatu da | 5,4 | 3,6 | 5,2 | 6,0 | 5,2 | 5,1 | 6,0 |
| Nire bikotekidea beste batekin mezuak bidaltzen dabil | 19,9 | 20,2 | 19,3 | 20,4 | 15,9 | 15,6 | 24,6 |
| Beste batekin musuka ibili da | 55,8 | 56,4 | 48,6 | 59,9 | 51,5 | 52,1 | 61,0 |
| Nire bikotekideak beste batekin sexu harremanak izan ditu | 75,7 | 84,7 | 72,9 | 75,8 | 77,4 | 73,9 | 76,2 |
| Nire bikotekidea beste batekin gelditzen da noizbehinka sexurako | 77,7 | 74,8 | 76,1 | 79,8 | 75,4 | 77,9 | 79,4 |
| ED/EE | 9,5 | 5,2 | 9,8 | 10,3 | 10,3 | 8,5 | 10,1 |

Iturria: Kaixomaitia.eus

4

LEIALTASUNA HARREMANETAN

G56 - Uste duzu zeure bikotekidea inoiz desleiala izan dela zurekin?



Grafikoa 4.14

Erantzunak: 1252

Iturria: Kaixomaitia.eus

Bikotekidedunen %26,1ak *uste du, susmoak ditu edo ziur dago bere bikotekidea desleiala izan dela inoiz berarekin*; %47,14ak *ez du uste eta* %26,2ak *ziur dio badakiela ez zaiola inoiz desleiala izan*.

Bikotekidea dute gizonezko gehiagok dio *badakiela bikotekidea desleiala izan dela*; gizonezkoen %14,2ak emakumezkoen %9,4aren aldean; Emakumezko gehiago dira, ordea, *euren bikotekidea desleiala izan ez dela badakitela* esaten dutenak; emakumezkoen %32ak gizonezkoen %20,6aren aldean.

G56 - Uste duzu zeure bikotekidea inoiz desleiala izan dela zurekin?

Taula 4.40

| | Guztira % | Adina | | | Sexua | | Joera sexuala | | |
|---|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|---------------|------|--------|
| | | 18-29 | 30-44 | 45-64 | Emak. | Gizon | Hetero | Homo | Bisex. |
| Bai, badaki desleiala izan dela | 9,0 | 8,2 | 10,2 | 8,3 | 7,1 | 11,1 | 8,4 | 9,9 | 16,7 |
| Ziur ez daki, baina susmo nabariak ditu | 3,5 | 3,4 | 3,9 | 3,1 | 3,0 | 4,0 | 3,4 | 2,5 | 6,9 |
| Bai, agian noizbait bai | 7,6 | 2,4 | 8,0 | 11,8 | 6,3 | 8,9 | 6,8 | 15,6 | 6,7 |
| Ez du uste inoiz desleiala izan denik | 36,3 | 25,6 | 44,0 | 36,5 | 34,9 | 37,8 | 37,6 | 29,9 | 25,5 |
| Badaki ez zaiola inoiz desleiala izan | 20,2 | 27,4 | 16,4 | 18,2 | 24,2 | 16,0 | 21,5 | 11,1 | 17,4 |
| Ez dut bikotekiderik | 23,4 | 33,0 | 17,5 | 22,2 | 24,5 | 22,3 | 22,3 | 31,0 | 26,9 |

Iturria: Kaixomaitia.eus

Taula 4.41

| | Guztira % | Egoera zibila | | | | Denbora egungo egoera zibilean (urte) | | | | | |
|---|-----------|-----------------|----------|---------------------------|-------|---------------------------------------|------|------|------|-------|------|
| | | Bikotekid eduna | Ezkondua | Dibortziatua edo banandua | Beste | <1 | 1-2 | 3-5 | 6-10 | 11-20 | >20 |
| Bai, badaki desleiala izan dela | 9,0 | 9,7 | 3,7 | 18,4 | 2,2 | 18,6 | 8,5 | 9,1 | 6,7 | 3,6 | 5,9 |
| Ziur ez daki, baina susmo nabariak ditu | 3,5 | 2,9 | 2,7 | 6,1 | 0,0 | 2,2 | 7,9 | 1,6 | 1,5 | 3,0 | 4,2 |
| Bai, agian noizbait bai | 7,6 | 8,0 | 7,5 | 14,9 | 43,4 | 3,8 | 9,1 | 8,0 | 10,7 | 5,1 | 7,6 |
| Ez du uste inoiz desleiala izan denik | 36,3 | 46,1 | 58,4 | 8,8 | 25,2 | 29,7 | 31,5 | 35,5 | 38,8 | 56,0 | 27,3 |
| Badaki ez zaiola inoiz desleiala izan | 20,2 | 33,0 | 27,7 | 4,6 | 4,7 | 18,1 | 21,2 | 27,9 | 18,1 | 14,8 | 21,6 |
| Ez dut bikotekiderik | 23,4 | 0,2 | 0,0 | 47,2 | 24,5 | 27,6 | 21,8 | 17,9 | 24,1 | 17,5 | 33,3 |

Iturria: Kaixomaitia.eus


Taula 4.42

| | Guztira % | Zoriontasun maila afektiboa momentu honetan | | | Zoriontasun maila sexuala momentu honetan | | |
|---|-----------|---|---------------|---------------------|---|---------------|---------------------|
| | | Oso baxua edo baxua | Erdipurdi koa | Altua edo oso altua | Oso baxua edo baxua | Erdipurdi koa | Altua edo oso altua |
| Bai, badaki desleiala izan dela | 9,0 | 12,2 | 12,2 | 7,1 | 8,2 | 10,1 | 8,4 |
| Ziur ez daki, baina susmo nabariak ditu | 3,5 | 4,6 | 3,9 | 3,3 | 4,5 | 2,6 | 3,7 |
| Bai, agian noizbait bai | 7,6 | 13,5 | 9,4 | 5,6 | 6,2 | 13,7 | 4,4 |
| Ez du uste inoiz desleiala izan denik | 36,3 | 18,5 | 32,4 | 41,2 | 22,5 | 33,4 | 44,9 |
| Badaki ez zaiola inoiz desleiala izan | 20,2 | 5,1 | 8,8 | 27,4 | 7,5 | 14,7 | 28,8 |
| Ez dut bikotekiderik | 23,4 | 46,1 | 33,4 | 15,5 | 51,2 | 25,4 | 9,8 |

Iturria: Kaixomaitia.eus

4 LEIALTASUNA HARREMANETAN

G57 - Galdetu diozu inoiz zeure bikotekideari zurekin desleiala izan den?



Galdetutakoen %65ak ez dio inoiz galdetu bere bikotekideari berarekin desleiala izan den, %35ak bai.

Emakumeek (%38) gehiago galdetzen dute hau gizonek baino (%31) Gutxien galdetzen dutenak homosexualak dira (%22) eta erlazio irekia dutenak (%40)

Dibortziatuen %54ak galdetu dio bere bikotekideari ea desleiala izan den

Zoriontasun maila afektibo baxua edo oso baxua dutenen %29ak galdetzen du, batzbestekoak bainaa 5 puntu gutxiago. Zoriontasun maila afektibo erdipurdikoa edo altua dutenek batzbestekoan mantentzen dira.

Zoriontasun maila sexualak antza ez du eragin handiegirik honekin.

G57 - Galdetu diozu inoiz zeure bikotekideari zurekin desleiala izan den?

Taula 4.43

| | Guztira % | Adina | | | Sexua | | Joera sexuala | | | Bikotekidea egun | | |
|-----|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|---------------|------|--------|------------------|--------|------|
| | | 18-29 | 30-44 | 45-64 | Emak. | Gizon | Hetero | Homo | Bisex. | Itxia | Irekia | Ez |
| Bai | 34,8 | 31,2 | 35,5 | 37,3 | 38,3 | 31,3 | 35,4 | 22,2 | 38,6 | 33,8 | 40,1 | 35,6 |
| Ez | 65,2 | 68,8 | 64,5 | 62,7 | 61,7 | 68,7 | 64,6 | 77,8 | 61,4 | 66,2 | 59,9 | 64,4 |

Iturria: Kaixomaitia.eus

Taula 4.44

| | Guztira % | Egoera zibila | | | | | Denbora egungo egoera zibilean (urte) | | | | | |
|-----|-----------|------------------|-----------------|----------|---------------------------|-------|---------------------------------------|------|------|------|-------|------|
| | | Bikotekid egabea | Bikotekid eduna | Ezkondua | Dibortziatua edo banandua | Beste | <1 | 1-2 | 3-5 | 6-10 | 11-20 | >20 |
| Bai | 34,8 | 31,5 | 35,2 | 31,2 | 53,8 | 28,4 | 34,4 | 33,6 | 42,4 | 38,3 | 25,7 | 33,6 |
| Ez | 65,2 | 68,5 | 64,8 | 68,8 | 46,2 | 71,6 | 65,6 | 66,4 | 57,6 | 61,7 | 74,3 | 66,4 |

Iturria: Kaixomaitia.eus

Taula 4.45

| | Guztira % | Zoriontasun maila afektiboa momentu honetan | | | Zoriontasun maila sexuala momentu honetan | | |
|-----|-----------|---|---------------|---------------------|---|---------------|---------------------|
| | | Oso baxua edo baxua | Erdipurdi koa | Altua edo oso altua | Oso baxua edo baxua | Erdipurdi koa | Altua edo oso altua |
| Bai | 34,8 | 29,3 | 34,8 | 35,5 | 32,4 | 33,1 | 36,1 |
| Ez | 65,2 | 70,7 | 65,2 | 64,5 | 67,6 | 66,9 | 63,9 |

Iturria: Kaixomaitia.eus

Euskal herritarren harreman sexual eta afektiboei buruzko ikerketa

2016



kaixomaitia

5

DATU DEMOGRAFIKOAK


“

Zeure datu pertsonal (ez identifikatzaileak) batzuk jasoko ditugu inkestaren emaitzak osatzeko. Erantzun batzuk derrigorrezkoak dira, beharrezkoak baititugu datuen interpretazio egokia egiteko.


”

5 DATU DEMOGRAFIKOAK

G58 - Zein da zure ikasketa maila?




G59 - Zein da zure lan egoera?



Erantzunak: 1283

5 DATU DEMOGRAFIKOAK

G60 - Hilero dituzun diru sarrera mota guztietan pentsatuta, hurrengo tarteetatik zeinetan kokatzen zara zu?




Erantzunak: 1291

5

DATU DEMOGRAFIKOAK

G61 - Nola definituko zenuke zeure burua erlijio gaitan?




Grafikoa 5.4

Erantzunak: 1228

Iturria: Kaixomaitia.eus

5 DATU DEMOGRAFIKOAK

G62 - Zein da zeure egoera zibila momentu honetan?



Grafikoa 5.5

Erantzunak: 1286

Iturria: Kaixomaitia.eus

18-29 adintartekoen %1,2 dago ezkontua , %50ak du bikotekidea, %47a da bikotekidegabea


30-44 adintartekoen %31 dago ezkontua, %5 dago dibortziatua edo banandua eta %25 bikotekidegabea.

45-64 adintartekoen %45 dago ezkontua, %24 dibortziatua edo banandua (batazbestekoa baina 15 puntu gehiago) eta %17ak ez du bikotekiderik.

Homosexualen eta bisexualen kasuan egoera zibilarekiko proportziak berdintsu mantentzen dira, %45 ggb da bikotekidegabea, %34 bikotekideduna, %16 dago ezkontua.

5 DATU DEMOGRAFIKOAK

G63 - Zein da zeure egoera zibila momentu honetan?




Grafikoa 5.6

Erantzunak: 1286

Iturria: Kaixomaitia.eus

G64 - Zenbat denbora daramazu egun duzun egoera zibilean?




Grafikoa 5.7

Erantzunak: 1248

5

DATU DEMOGRAFIKOAK

G65 - Zenbat seme-alaba dituzu?




Grafikoa 5.8

Erantzunak: 1249

Iturria: Kaixomaitia.eus

5 DATU DEMOGRAFIKOAK

G66 - Sexua



Grafikoa 5.9

Iturria: Kaixomaitia.eus

Aztertutako unibertsioaren %51 da emakumezkoa eta %49 da gizonezkoa.

Euren burua homosexualtzat duten %18 emakumezkoak dira eta %82 gizonezkoa, bisexualen kasuan %55 da emakumezkoa eta %44 gizonezkoa.

Erlazio irekia dutela dioten %33 da emakumezkoa eta %66 gizonezkoa

Zoriontasun maila afektiboa baxua edo oso baxua dutenen %60 dira gizonezkoak.

Zoriontasun maila sexual altuagoa dute emakumezkoek.

G66 - Sexua

Taula 5.1

| | Guztira % | Adina | | | Sexua | | Joera sexuala | | | Bikotekidea egun | | |
|-------------|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|---------------|------|--------|------------------|--------|------|
| | | 18-29 | 30-44 | 45-64 | Emak. | Gizon | Hetero | Homo | Bisex. | Ibia | Irekia | Ez |
| Emakumezkoa | 51,0 | 53,7 | 49,6 | 50,2 | 100,0 | 0,0 | 53,9 | 18,0 | 55,2 | 52,1 | 33,7 | 52,3 |
| Gizonezkoa | 49,0 | 46,3 | 50,4 | 49,8 | 0,0 | 100,0 | 46,1 | 82,0 | 44,8 | 47,9 | 66,3 | 47,7 |

Iturria: Kaixomaitia.eus

Taula 5.2

| | Guztira % | Egoera zibila | | | | | Denbora egungo egoera zibilean (urte) | | | | | |
|-------------|-----------|------------------|-----------------|----------|---------------------------|-------|---------------------------------------|------|------|------|-------|------|
| | | Bikotekid egabea | Bikotekid eduna | Ezkondua | Dibortziatua edo banandua | Beste | <1 | 1-2 | 3-5 | 6-10 | 11-20 | >20 |
| Emakumezkoa | 51,0 | 50,5 | 48,6 | 49,3 | 68,7 | 28,3 | 54,5 | 52,4 | 61,6 | 49,3 | 49,5 | 37,4 |
| Gizonezkoa | 49,0 | 49,5 | 51,4 | 50,7 | 31,3 | 71,7 | 45,5 | 47,6 | 38,4 | 50,7 | 50,5 | 62,6 |

Iturria: Kaixomaitia.eus


Taula 5.3

| | Guztira % | Zoriontasun maila afektiboa momentu honetan | | | Zoriontasun maila sexuala momentu honetan | | |
|-------------|-----------|---|---------------|---------------------|---|---------------|---------------------|
| | | Oso baxua edo baxua | Erdipurdi koa | Altua edo oso altua | Oso baxua edo baxua | Erdipurdi koa | Altua edo oso altua |
| Emakumezkoa | 51,0 | 40,7 | 43,4 | 55,8 | 50,8 | 42,6 | 56,6 |
| Gizonezkoa | 49,0 | 59,3 | 56,6 | 44,2 | 49,2 | 57,4 | 43,4 |

Iturria: Kaixomaitia.eus

5 DATU DEMOGRAFIKOAK

G67 - Zein da zure joera sexuala?



Iturria: Kaixomaitia.eus

Erantzunak: 1291

Euskaldunon %83k du bere burua heterosexualtzat, %8,9 homosexualtzat, %6,4 bisexualtzat eta %1,1ak ez du bere burua aurrekoetan kokatzen.

Emakumeen %3,1 du bere burua homosexualtzat eta %6,9 bisexualtzat. Gizonezkoen %14,9 du bere burua homosexualtzat eta %5,8 bisexualtzat.

Emakumezkoen kasuan (%88,4) heterosexualitatea gizonezkoetan (%78,7) baina gehiago ematen da 10 puntuz.

Ezkonduen %5,5 da homosexuala

Harreman irekia dutenen %18 bisexuala da, batzbestekoa baina 12 puntu gehiago

G67 - Zein da zure joera sexuala?

Taula 5.4

| | Guztira % | Adina | | | Sexua | | Bikotekidea egun | | |
|---------------|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|------------------|--------|------|
| | | 18-29 | 30-44 | 45-64 | Emak. | Gizon | Itxia | Irekia | Ez |
| Heterosexuala | 83,6 | 76,2 | 85,2 | 88,4 | 88,4 | 78,7 | 87,0 | 65,1 | 81,6 |
| Homosexuala | 8,9 | 11,6 | 7,9 | 7,6 | 3,1 | 14,9 | 7,5 | 12,7 | 10,4 |
| Bisexuala | 6,4 | 10,8 | 5,1 | 4,0 | 6,9 | 5,8 | 4,5 | 18,0 | 7,2 |
| Beste | 1,1 | 1,4 | 1,8 | 0,0 | 1,6 | 0,6 | 0,9 | 4,2 | 0,7 |

Iturria: Kaixomaitia.eus

Taula 5.5

| | Guztira % | Egoera zibila | | | | | Denbora egungo egoera zibilean (urte) | | | | | |
|---------------|-----------|------------------|-----------------|----------|---------------------------|-------|---------------------------------------|------|------|------|-------|------|
| | | Bikotekid egabea | Bikotekid eduna | Ezkondua | Dibortziatua edo banandua | Beste | <1 | 1-2 | 3-5 | 6-10 | 11-20 | >20 |
| Heterosexuala | 83,6 | 74,4 | 82,6 | 90,6 | 97,0 | 86,1 | 80,6 | 83,1 | 87,9 | 84,1 | 92,6 | 75,3 |
| Homosexuala | 8,9 | 14,4 | 9,0 | 5,5 | 0,7 | 10,2 | 9,5 | 9,8 | 5,5 | 12,6 | 2,6 | 13,8 |
| Bisexuala | 6,4 | 9,6 | 6,7 | 3,6 | 2,3 | 3,7 | 9,4 | 6,0 | 6,0 | 3,3 | 3,1 | 8,5 |
| Beste | 1,1 | 1,6 | 1,7 | 0,3 | 0,0 | 0,0 | 0,5 | 1,1 | 0,7 | 0,0 | 1,7 | 2,4 |

Iturria: Kaixomaitia.eus


Taula 5.6

| | Guztira % | Zoriontasun maila afektiboa momentu honetan | | | Zoriontasun maila sexuala momentu honetan | | |
|---------------|-----------|---|---------------|---------------------|---|---------------|---------------------|
| | | Oso baxua edo baxua | Erdipurdi koa | Altua edo oso altua | Oso baxua edo baxua | Erdipurdi koa | Altua edo oso altua |
| Heterosexuala | 83,6 | 78,4 | 86,1 | 83,9 | 83,5 | 83,2 | 83,7 |
| Homosexuala | 8,9 | 16,6 | 7,2 | 7,9 | 10,8 | 8,2 | 8,6 |
| Bisexuala | 6,4 | 4,2 | 6,3 | 6,8 | 5,1 | 7,5 | 6,3 |
| Beste | 1,1 | 0,8 | 0,4 | 1,4 | 0,6 | 1,0 | 1,4 |

Iturria: Kaixomaitia.eus

5 DATU DEMOGRAFIKOAK

G68 - Zein da zure adina?



Erantzunak: 1291

Homosexualen %37 eta Bisexualen ia erdia 18-29 adintartekoak dira. Bisexualen %20 bakarrik da 45-64 adintartekoa.

Dibortziatu eta banatuen %80 44-64 adintartekoak dira.

Zoriontasun maila sexuala baxua edo oso baxua dutenen %43 44-64 adintartekoak dira.

G68 - Zein da zure adina?

Taula 5.7

| | Guztira % | Sexua | | Joera sexuala | | | Bikotekidea egun | | |
|------------|-----------|-------|-------|---------------|------|--------|------------------|--------|------|
| | | Emak. | Gizon | Hetero | Homo | Bisex. | Itxia | Irekia | Ez |
| 18-29 urte | 28,8 | 30,3 | 27,2 | 26,2 | 37,6 | 48,8 | 23,0 | 35,9 | 37,0 |
| 30-44 urte | 39,1 | 38,0 | 40,2 | 39,8 | 34,9 | 31,3 | 43,7 | 43,0 | 30,7 |
| 45-64 urte | 32,2 | 31,7 | 32,7 | 34,0 | 27,5 | 19,9 | 33,4 | 21,1 | 32,3 |

Iturria: Kaixomaitia.eus

Taula 5.8

| | Guztira % | Egoera zibila | | | | | Denbora egungo egoera zibilean (urte) | | | | | |
|------------|-----------|------------------|-----------------|----------|---------------------------|-------|---------------------------------------|------|------|------|-------|------|
| | | Bikotekid egabea | Bikotekid eduna | Ezkondua | Dibortziatua edo banandua | Beste | <1 | 1-2 | 3-5 | 6-10 | 11-20 | >20 |
| 18-29 urte | 28,8 | 46,9 | 43,9 | 1,3 | 0,0 | 31,6 | 61,9 | 38,9 | 30,8 | 10,8 | 12,7 | 18,5 |
| 30-44 urte | 39,1 | 33,9 | 43,7 | 45,0 | 20,6 | 46,0 | 27,9 | 38,8 | 45,0 | 66,3 | 29,6 | 27,9 |
| 45-64 urte | 32,2 | 19,3 | 12,5 | 53,7 | 79,4 | 22,5 | 10,1 | 22,3 | 24,2 | 22,9 | 57,7 | 53,7 |

Iturria: Kaixomaitia.eus

Taula 5.9


| | Guztira % | Zoriontasun maila afektiboa momentu honetan | | | Zoriontasun maila sexuala momentu honetan | | |
|------------|-----------|---|---------------|---------------------|---|---------------|---------------------|
| | | Oso baxua edo baxua | Erdipurdi koa | Altua edo oso altua | Oso baxua edo baxua | Erdipurdi koa | Altua edo oso altua |
| 18-29 urte | 28,8 | 25,8 | 21,8 | 32,3 | 23,3 | 24,3 | 33,6 |
| 30-44 urte | 39,1 | 36,4 | 41,1 | 39,4 | 33,9 | 44,5 | 38,4 |
| 45-64 urte | 32,2 | 37,8 | 37,1 | 28,3 | 42,8 | 31,2 | 28,0 |

Iturria: Kaixomaitia.eus

5

DATU DEMOGRAFIKOAK

G69 – Nongoa zara?



* Iparraldeko nahikoa erantzunik ez dugu jaso eta ez da adierazgarria

Erantzunak: 1291

Grafikoa 5.12

Iturria: Kaixomaitia.eus

G69 – Nongoa zara?

Taula 5.10

| | Guztira % | Adina | | | Sexua | | Joera sexuala | | | Bikotekidea egun | | |
|----------|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|---------------|------|--------|------------------|--------|------|
| | | 18-29 | 30-44 | 45-64 | Emak. | Gizon | Hetero | Homo | Bisex. | Itxia | Irekia | Ez |
| Araba | 8,3 | 8,7 | 9,3 | 6,6 | 8,0 | 8,6 | 7,9 | 5,5 | 15,8 | 9,0 | 8,4 | 7,2 |
| Bizkaia | 39,1 | 35,5 | 40,9 | 40,2 | 38,3 | 40,0 | 38,4 | 51,3 | 28,4 | 38,1 | 36,9 | 40,9 |
| Gipuzkoa | 42,5 | 34,0 | 42,4 | 50,3 | 41,3 | 43,9 | 44,2 | 33,6 | 37,6 | 43,6 | 35,9 | 42,3 |
| Nafarroa | 10,1 | 21,8 | 7,3 | 2,9 | 12,5 | 7,6 | 9,4 | 9,6 | 18,2 | 9,3 | 18,8 | 9,7 |

Iturria: Kaixomaitia.eus

Taula 5.11

| | Guztira % | Egoera zibila | | | | | Denbora egungo egoera zibilean (urte) | | | | | |
|----------|-----------|------------------|-----------------|----------|---------------------------|-------|---------------------------------------|------|------|------|-------|------|
| | | Bikotekid egabea | Bikotekid eduna | Ezkondua | Dibortziatua edo banandua | Beste | <1 | 1-2 | 3-5 | 6-10 | 11-20 | >20 |
| Araba | 8,3 | 7,5 | 7,6 | 9,7 | 7,6 | 18,1 | 8,4 | 8,9 | 13,5 | 4,4 | 5,0 | 8,5 |
| Bizkaia | 39,1 | 40,7 | 39,3 | 35,7 | 47,7 | 12,9 | 38,2 | 35,9 | 33,3 | 42,6 | 50,2 | 35,3 |
| Gipuzkoa | 42,5 | 39,7 | 37,6 | 50,3 | 41,5 | 69,0 | 39,1 | 40,4 | 41,9 | 46,3 | 39,6 | 48,9 |
| Nafarroa | 10,1 | 12,1 | 15,5 | 4,3 | 3,2 | 0,0 | 14,3 | 14,8 | 11,2 | 6,7 | 5,1 | 7,3 |

Iturria: Kaixomaitia.eus

Edurne
Bilbo
44 urte

"Orain
zoriontsua naiz"



Euskal herritarren
harreman sexual eta
afektiboetarako buruzko ikerketa

2016

6

BALORAZIOAK



kaixomaitia

Euskaldunon Harremanetarako Gunea

#SaltsaBadago!

kaixomaitia.eus



EZAGUTU

KMWeb




TOPATU

KMEkintzak



HAUSNARTU

KMBlog



6 BALORAZIOAK

Kaixomaitia.eus etik, guretzat erreferentziazkoak diren eragile edo norbanakoei eskatu diegu ikerketaren emaitzen balorazio kualitatibo bat egin dezaten. Balorazio hau, euren esperientzia eta ezagutzan oinarrituak egiteko eskatu zaie, libreki, fokua interesgarrien iruditzen zaien atale(t)an jarriaz. Guk jaso bezala zabaldu ditugu .

Eginiko lanarengatik, guztiei ere, berriro, eskerrak eman nahi dizkiegu, bihotzez.

Balorazioak egin dituzte ondorengo norbanako eta eragileek:

153 or. – **KAIXOMAITIA.EUS**

www.kaixomaitia.eus
admin@kaixomaitia.eus

158 or. - **MIKEL OTXOTORENA FERNANDEZ**

Genero eta Maskulinitateetan kontsultorea
mikelotxoto@yahoo.es

167 or.– **EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA**

Gudarien etorbidea z/g
Martin Ugalde Kultur Parkea
20.140 Andoain
bulegoa@bilgunefeminsta.eus

187or.– **HARREMANAK.EUS**

Ildefonso Gurrutxaga, 3.
20.730 Azpeitia
Ramon Maria Lili, 8.
20.002 Donostia
harremanak@yahoo.es

190or.– **GEHITU ELKARTEA**

kolon Pasealekua, 50
20.002 Donostia
info@gehitu.org

6 BALORAZIOAK



Balorazio orokor bat

#KM_Sexuinkesta traolarekin ezagutzera eman dugun ikerketa abian jarri genuenean bagenuen susmo bat nahiko arrakasta izango zuela, baina askotan susmo hau desira bat baina ez da izaten, eta azkenean aurrikusitako arrakasta ezerezean geratzen da. Ez da oraingoan hau gertatu. Lehen balorazioa hau da beraz, sexuaren inguruko gaiek duten interesa, bai gizartean bai eta mediatikoki ere. Horrek jadanik zer pentsatu ematen du. Badirudi sexuak baduela kutsu errebindikatibo bat, pekatuari, moral zorrotzari loturik dagoena praktikatzek ematen duen askatasun eta iraultza sentazioa edo. Ezkutukoa dena anonimoki argitara emateak, libreki aitortzeko aukera izateak izan du ere eragina gure ustez eta emaitza 2500 pertsona inguruk artez edo moldez honetan parte hartzea izan da.

Aipatu nahi dugu ere ikerketaren prozesu honetan, laguntza eskatu dugunean norbanako eta eragile ezberdinek izan duten eskuzabaltasuna, ulermena, laguntzeko prestutasuna. Gure baliabideak (pertsonal nahiz ekonomikoak) ez dira ikerketa potoloak egiteko modukoak eta elkarlan eta eskuzabaltasun honi esker lan txukun bat aurrera ateratzeko aukera izan dugu, kolektiiboki. Hau horrela izanik zentzuzkoa zirudigun Lizentzia ireki baten bidez guztiekin partekatzea ikerketa honen emaitzak.

Esan bezala, datu andana da pilatu duguna eta ezinezkoa zaigu xehetasun eta gurutzaketa guztiak aztertzea, gonbitea luzatzen diogu mundu guztiari datuen azterketa honetan parte hartu eta emaitzak ere parteka ditzaten.



6 BALORAZIOAK



Inkestaren emaitzen gure balorazio orokorrari dagokionez berriz, garrantzia 2 puntutan jarri nahiko genuke.

Orokorrean barneratua dugu bikote harremana dela dagokion harreman eredia. Ia denok dugu edo bilatzen dugu bikote harremana. Ez dutenei etorkizunean gustatuko litzaieken galdetuta %7ak soilik esaten du ezezkoa. Eta badirudi afektiboki behintzat honek egiten gaituela zoriontsu. Baina honi lotuta ere nabaritu dugu bikote harreman tradizionalaren (heterosexuala, monogamoa, itxia) harreman irekiak ere euren lekua hartzen dutela gizartearen nahietan, desioetan. Bikotekidea dutenen %19ak irekiko luke egun duen harreman itxia, bikotekidea ez dutenen %26ak izango luke bikotekidea harreman irekian, aitzitik egun %7ak baino ez du harreman irekia.

Zoriontasun maila afektiboari dagokionez iruditzen zaigu ez dela maila txarra ematen duguna (6,9/10) baina ba dela zer hobetu, kasu honetan nota kaskarragoak jarri dizkiete euren buruari bikote harremanik ez dutenak.

Atentzioa deitu digun beste kontu bat sexuaren inguruko gaiak dira, hau izan zen ikerketa abian jartzearen arrazoietakoa bat eta xehetasun bereziarekin jorratu dugu gaia.

Atzetik aurrera hasita, zoriontasun maila sexuala jarri nahiko genuke mahai gainean; 5,79/10 etik ez zaigu iruditzen kanpaia jotzeko arrazoi denik (edo bai, umorez hartzen badugu) . Esanguratsua iruditzen zaigu ere adinak aurrera egin ahala zoriontasun mailak behera egiten duela, esanguratsua bezain kezkarria. Gora egin beharko luke idealki, bizitzak aurrera egin ahala, norberaren ezagutza, maila fisiko nahiz emozionalean, esperientzia edota bikotearen ezagutzak bizitza sexuala hobetzeko arrazoi nahiko beharko lukete izan. Ez da hala gertatzen antza.



6 BALORAZIOAK



Inkestaren emaitzen gure balorazio orokorrari dagokionez berriz, garrantzia 2 puntutan jarri nahiko genuke.

Orokorrean barneratua dugu bikote harremana dela dagokion harreman eredia. Ia denok dugu edo bilatzen dugu bikote harremana. Ez dutenei etorkizunean gustatuko litzaieken galdetuta %7ak soilik esaten du ezezkoa. Eta badirudi afektiboki behintzat honek egiten gaituela zoriontsu. Baina honi lotuta ere nabaritu dugu bikote harreman tradizionalaren (heterosexuala, monogamoa, itxia) harreman irekiak ere euren lekua hartzen dutela gizartearen nahietan, desioetan. Bikotekidea dutenen %19ak irekiko luke egun duen harreman itxia, bikotekidea ez dutenen %26ak izango luke bikotekidea harreman irekian, aitzitik egun %7ak baino ez du harreman irekia.

Zoriontasun maila afektiboari dagokionez iruditzen zaigu ez dela maila txarra ematen duguna (6,9/10) baina ba dela zer hobetu, kasu honetan nota kaskarragoak jarri dizkiete euren buruari bikote harremanik ez dutenak.

Atentzioa deitu digun beste kontu bat sexuaren inguruko gaiak dira, hau izan zen ikerketa abian jartzearen arrazoietakoa bat eta xehetasun bereziarekin jorratu dugu gaia.

Atzetik aurrera hasita, zoriontasun maila sexuala jarri nahiko genuke mahai gainean; 5,79/10 etik ez zaigu iruditzen kanpaia jotzeko arrazoiak denik (edo bai, umorez hartzen badugu) . Esanguratsua iruditzen zaigu ere adinak aurrera egin ahala zoriontasun mailak behera egiten duela, esanguratsua bezain kezkarria. Gora egin beharko luke idealki, bizitzak aurrera egin ahala, norberaren ezagutza, maila fisiko nahiz emozionalean, esperientzia edota bikotearen ezagutzak bizitza sexuala hobetzeko arrazoi nahiko beharko lukete izan. Ez da hala gertatzen antza.



6 BALORAZIOAK



Hau gutxi balitz, zoriontasun maila sexuala eta afektiboak denboran bide paraleloak egiten dituzte, urteetan aurrera egin ahala biak behera, nahiko paraleloki. Bakoitzario dagokio honen gaineko hausnarketa egitea.

Zoriontasun sexualari esplikazio bat emateko baliogarri izan daiteke sexu harremanen maiztasuna. Ez da maiztasuna, kantitatea, azterketa hau egitean bereziki identifikatuak/eroso sentitzen ginen faktore bat sexuari dagokionez, baina kuantitatiboki aztertzeko aukera onak ematen ditu eta sexualitateari buruzko ikerketa gehienetan azaltzen den faktore bat da.

Faktore hau datu baliogarrizat hartuta, ikus dezakegu euskaldunok batazbeste 1,15 bider izaten ditugula sexu harremanak astean, urtean 60 bider zehazkiago. (sexu harremanak erantzun dutenen ulermenaren arabera, dena delakoa izanik) Nahia berriz 2,99 koa. Badago aldea. Gizonezko eta emakumezkoak nahiean paretsu (emakumezkoak zalantza gehiago erantzunetan agian). Beraz, non dago arazoa? Guztiok nahiko genuke sexu harreman gehiago izan, baina ez gara gai behar hau modu ireki batean espresatzeko?

Maiztasunak egiten gaitu sexualki zoriontsuago? 79 orrialdeko 3.11 grafikoari erreparatzen badiogu badirudi hein batean baietz. Zoriontasun maila altuenak adierazi dutenak dira aldi berean sexu harremanak maiztasun handiagoz izaten dituztenak. Eraitza badakigu, 5,79. Nota hobetu beharra dugula uste dugu. Izan ere, zenbateraino dago gure zoriontasun orokorra baldintzatua zoriontasun sexualaz?

Guzti honetan non geratzen da desioa eta nola kudeatzen dugu desioa? Aipatu dugu bikote harremana izatea dela guztion nahia (%7ak ez luke nahi soilik) baina %65ak aitortu du bere bikotekidea ez den beste pertsona batengan sentitzen duela desira sexuala batzuetan, askotan edo etengabe.



6 BALORAZIOAK



%42 izan zaio “desleiala” bere egungo edo aurreko bikotekideari, %50ak izango luke harreman sexuala beste batekin bikotean adostuta. %40ak izango lituzke harreman sexualak beste batekin bere bikotekideak inoiz jakingo ez lukeen bermea izango balu.

Desleialtasunaren inguruan galdetuta arrazoi nagusiak, ilusio edo erakarmen falta, tentazioak eta sexu falta dira lehen hiru aukerak.

Harreman afektibo ideal bat aukeratuko bagenu bikote harreman ireki bat litzateke? Harremanak irekitzearen ondorio ezezagunen beldur gara? Gizarte heteropatriarkala da modu jakin batean harremantzeko irizpideak ezartzen dituen eta honi aurre egiteko gai ez gara? Galdera ugari datozkigu burura, eta zorionez, hala aitortuta, galdera hauek euren bururari egiten hasteko aukera eman diete inkesta bete duten askori. Kaixomaitia.eus en helbur nagusia hau izan da, sexu eta harremani buruzko hausnarketa sustatzea eta ikerketa honekin zertxobatit lortu(ko) dugula uste dugu.

Amaitzeko, berriro ere, ez bait gara nekatuko, mila esker ikerketa honetan parte hartu duzuen guzti guztioi, maiteok.

Kaixomaitia.eus

Sarrera

Lehenik eta behin, eskerrak eman Kaixomaitia-ri (euskaldunon harremanetarako guneari) emandako aukeragatik, niri eta beste kolektibo batzuei, beraien ikerketan parte hartu ahal izateko, ikuspegi eta iritzi ezberdinak batzeko helburuarekin. Eta bide batez, lan kolektiboak egitearen garrantzia azpimarratu eta bideratzeagatik.

Zorionak egindako inkestagatik eta izandako arrakastagatik, parte hartu dutenen kopurua oso altua izan delako, eta ondorioz unibertso horren iritziak jasotzeak pista asko ematen dizkigu eta gai hauen inguruan euskal herritarren radiografia bat egiten laguntzen duelako.

Bestalde inkestan jorratzen diren gaiak ez dira oso ohikoak izaten. Erantzunek ate asko zabaltzen dizkigute, beti ere oso kontutan edukita inkestaren tresnak izan ditzakeen mugak.

Dokumentu honi dagokionez, eta Kaixomaitiatik emandako askatasuna kontutan edukita, batzuetan iruzkinak nahastuta azalduko dira galdera moduan edo/eta iruzkin modura. Azterketa ez dago sakontasunean egina. Datu asko biltzen dituzte erantzunek. Helburua, arreta deitutako gauza batzuk azpimarratzea izan da. Aspektu edo eta gai batzuk ez aipatzeak edo azaletik egiteak, ez du adierazi nahi garrantzitsuak ez direnik. Azterketa egin duten beste lan talde batzuek sakontasunez jorratzen dituzten alorrekin zerikusia dutelako ez da sakontzen, besteak beste.

Hasiera batetan galdera eta iruzkin orokorrak plazaratuko dira testu honetan. Galderak, esan bezala, ikerketaren ondorioz jasotako erantzunak ate asko irekitzen dituztelako. Iruzkinak, irakurketa egitearen ondorioz sortutako komentarioak direlako. Orokortasunetik abiatuta, inkestan azaltzen diren atal bakoitzeko aipu batzuk eginaz garatzen da dokumentu hau.

Noski beste faktore askok ere eragin dezaketela, baina gizarte beraren aldaketa gai hauekiko ezin ukatu.

Gure gizarteak bikote izatea saritu egiten du. Baina bikote modu jakin bat bereziki, balore jakin batzuekin. Eta hori da gizartearen gehiengoak bilatzen duena eta desiratzen duena. Baina zein puntutaraino gure gizartearen eredu kultural, erlijiosoa, sozialak, e.a. eragina dute gure desio eta nahietan? Horregatik agian, zorientasun maila afektiboa eta sexuala oso erlazionatuta azaltzen da erantzunetan bikote izan edo ez izatearekin.

Gure gizarteak inposatzen digun arauetako bat da, pertsona bezala gauzatu ahal izateko bikote bat behar dugula. Baina esan bezala bikote eredu jakin bat (malgutasun eta aniztasun txiki batekin mozorrotuta) topatu, desio edo/eta bilatzen duguna. Eta ez baduzu lortzen, gizarteak berak “zigortuko” zaitu. Hau da, funtsean, amodio erromantikoak proposatzen dizkigun idealak topatu genitzake behin eta berriz inkestaren erantzunetan. Eta ez da kasualitatea, adibidez emakume eta gizonezkoak amodio erromantiko horren eredia izanda, modu ezberdinean bizi eta sentitzea egoera berdinak. Eta hemen argi eta garbi, sexismoa¹ azaltzen zaigu, amodio erromantiko horren zutabe eta zaindari moduan, non emakume eta gizonezkoek zein rol sozial betetzeko “gonbitea” luzatzen dien. Amodio erromantiko hori erabat lotuta doa, gizarteak inposatzen digun bikote behar horrekin, balore jakin batzuekin, harreman afektibo eta sexualak ulertzeko modu jakin batzuekin... eta naiz eta orokorrean adibidez, inkestan azaltzen diren hiru orientazio sexual ezberdinen artean, ezberdintasunak egon gai askoren artean, ez da salbuespena (orientazio sexuala) amodio erromantiko horretaz salbuetsita egoteko. Adibide moduan ikusi besterik es dago nola ulertzen diren bikote harremanak orientazio sexual ezberdinen artean. Modu berdinean, ez dira salbuespen suertatuko; adina, sinesmenak, diru sarrerak, egoera zibila,... ideal horren “babesean” kokatu behar ditugu.

1 Sexismoaren osagai nagusietariko bezala misoginia eta homofobia kontutan hartzen ditu egileak, besteak beste.

6

BALORAZIOAK
MIKEL OTXOTORENA FERNANDEZ
GENERO ETA MASKULINITATEETAN
KONTSULTOREA

Berriz ere azpimarratu beharra dago, honekin ez dela adierazi nahi ez dagoenik aniztasunik harreman afektibo eta sexualak ulertu, bizitu, sentitu edo eta baloratzean. Edo eta aurrerapausorik eman ez denik. Hasieran esan den bezala, gizartea eraldatzen doa eta inkestaren erantzunetan antzeman daiteke, adibidez bikote harreman ezberdinez hitz egiten denean. Adierazi nahi den ideia nagusia da, oraindik balore jakin batzuk oso presente daudela harreman afektibo eta sexualen sustraietan. Oso hertsia direnak, amodio erromantikoa osatzen duten osagaiez eraikita daudelako. Dokumentuaren puntu honetatik aurrera, inkestan formatu berbera jarraituko da, hau da, atalez atal. Erantzunetan topatutako ideia batzuk adieraziko dira, askorik sakondu gabe eta beti ere gogoeta eta eztabaidarako gonbidapena luzatuaz. Bestalde, Kaixomaitia eta Aztiker-ek lehen txostenean adierazitako ideia batzuk berdina direnez, ez dira errepikatuko.

6 BALORAZIOAK

MIKEL OTXOTORENA FERNANDEZ
GENERO ETA MASKULINITATEETAN
KONTSULTOREA

1 Egoera afektiboa

Bikotea edukitzea, zorientasun maila afektibo eta sexualarekin oso erlazionatuta azaltzen da. Aurreko atalean adierazi den bezala, honen atzean, gizarteak inposatzen digun bikote “behar” hori egon daiteke. Bikoterik ez dutenen artean adibidez, bikote izatearen nahia oso altua da. Eta berdin dio, emakume edo gizon izan, edo orientazio sexual bat eduki edo beste. Baina erantzun batzuetan argi ikusten da, harreman bat edukitzea ez dela maiteminduta egoteko ziurtagiria.

Emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak maitasunaren inguruko erantzunetan nabariak dira. Maitasunaren inguruko ideal erromantikoa behin eta berriz adierazten da. Badirudi emakume eta gizonen maitasunaren inguruko ideia ezberdinak dituztela (maitatua sentitu eta maitatu).

Batzuetan, inkesta bete dutenei eskaintzen zaizkien galderen erantzunetan, amodio erromantikoaren idealak ageri da. Adibidez G8 galderan, non aukeratu behar dituzten erantzunetan ez dira aukera bezala azaltzen harreman batetan topatzen ditugun beste osagai batzuk; gatazka edo zaintzak adibidez.

Aurreko ideia lotu genezake zorientasun mailarekin. Hau da, bikote harremanen inguruan ditugun itxaropenak zorientasun mailarekin guztiz erlazionatuta doaz, eta itxaropen horiek harreman ideal jakin batekin lotuta badaude, lortutako emaitzen analisia egitean presente eduki beharko dugu.

Harreman irekien inguruko erantzunetan, badirudi pertsona gazteenak irekiagoak daudela bikote harreman hauetara. Agian, gizarte mailan ematen ari den aurre pausa txiki baten seinale da. Baina adibidez sexu aldagaia zeharkatzea interesgarri izango litzake ikusteko genero mandatuek zein paper jokatzeko duten.

Gizartearen aldetik gutxien ulertzen diren orientazio sexualak dira harreman ireki gehienak dituztenak (bereziki bisexualak). Baina hemen ere interesgarria litzake sexu aldagaia zeharkatzea, ikusi ahal izateko emakume edo gizon bisexualean artean ezberdintasunik ba ote dagoen.

Bikote irekiak eramangarriak ez izatearen erantzunen atzean egon daiteke, gure gizartea bikote monogamoetan oinarritzen eta sustengatzen dela. Eredu horretatik kanpo egon daitezkeen aukerak ez eramangarriak izatearen ustea indartu dezake.

Azkenik, gizonen nahia dela esaten denean, maskulinitate hegemonikoaren ezaugarrietako baten ideia egon daiteke, genero mandatuak bultzatua; gizonezkoen sexu aktibitate gehiagoren beharra eta sexurako beti prest egon beharra

2 Internet bidezko harremanak

Emakume eta gizonen arteko aldea oso nabaria da. Adibidez webgune baten izen emateaz galdetzen denean. Sexuarekiko jasotzen dugun sozializazioaren eragina izan daiteke arrazoi bat. Berriz ere maskulinitate hegemonikoaren mandatuak egon daitezke zergatien artean.

Maiztasunarekin erlazionatuta, helduenak eta homosexualak dira gehien erabiltzen dituztenak. Besteak beste, arrazoiaren artean, kalea eta aisialdia pertsona gazte eta heterosexualei zuzenduta dagoela eta arau heteronormatiboen prisma batetik.

Sexua da gehien bilatzen dena. Webguneek ematen duten anonimotasuna garrantzitsua izan daiteke, bereziki gure gizartean oraindik sexu harremanak balore jakin batzuekin erlazionatzen direlako, beti ere kontestu jakin batzuetatik kanpo gauzatze badira bereziki.

Gizonak eta homosexualak azaltzen dira Internet bidez ezagututako norbaitekin harreman gehien izan dituztenak Internetetik kanpo. Alde batetik interesgarria litzake homosexualen artean aztertzea zein kopurutan ematen den emakume homosexual eta gizon homosexualen artean (berdin bisexualekin). Dena den, badirudi, gizon homosexual, bisexual eta heterosexualek artean ematen dela bereziki. Berriz ere gizontasun jakin batekin zerikusia duen adierazle izan daiteke.

Webguneetan izena ez ematearen erantzunetan, emakumezkoak bereziki lotsa eta beldurra. Arauak apurtzearen lotsa eta beldurra? Internet azken finean espazio publiko bezala kontsidera genezake, eta argi dago, gaur egun oraindik gizonak erosoago mugitzen direla espazio publikoan.

3 Bizitza sexuala

Atal honetan, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak oso nabariak dira. Behin eta berriz topatzen ditugu adibideak atal honetan jasotako erantzunetan. Genero mandatuak gogor eusten duten adierazgarri.

Gizonezkoak orokorrean prestutasun handiago sexuarekin zerikusia duten gauzeekin. Genero mandatua behin eta berriz. Nolabait, gizonezkoen kasuan “machote” ideal hori egon daiteke, eta emakumeen kasuan “puta”-rena bikote sexual kopuruaren inguruko galdera erantzuten denean. Homosexualen artean interesgarria litzake ikusi ahal izatea ea lesbianen artean kopuru berdinean ematen den, gizon homosexualekin konparatuta.

Sexua amodioarekin erlazionatzearen joera edo ideia gehiago dagoela dirudi emakumeen artean (adibidez lehen gauean sexua edukitzearen erantzunetan) gizonekin konparatuta. Kontutan eduki behar da gizontasunaren eraikuntza sozialean, sexua eta maitasuna errazago bereizten dela emakumetasunaren eraikuntza sozialean baino.

Atentzioa deitzen du zein maiztasunez sexua izatea gustatuko litzaiokeen erantzutean, emakume eta gizonak pareko erantzutea. Baina bestalde beste galderen erantzunen azterketa eginda, nabari da gizonak sexu gehiago edo gutxienez beste modu batera bizi izaten dutela. Hau da, nahia eta gertatzen denaren arteko tartea nabariagoa dela emakumeen kasuan.

6

BALORAZIOAK
MIKEL OTXOTORENA FERNANDEZ
GENERO ETA MASKULINITATEETAN
KONTSULTOREA

Pornografiari dagokionez, emakume eta gizonen arteko alde nabaria da. Besteak beste, maskulinitate jakin baten arauetatik gain, presente eduki behar da pornografia orohar gizonezkoei zuzenduta dagoela bereziki. Eta gizon izate modu jakin bateri.

Sexu bereko pertsona batekin harreman sexuala izan duten galdetzen denean, erantzunak berriz oso ezberdinak dira emakume eta gizonen artean. Jarrera irekiagoa emakumeen artean. Presente eduki behar da maskulinitate hegemonikoaren zutabe nagusietako bat homofobia dela, beraz ez da harritzekoa jasotako erantzunak.

Taldeetan sexu harremanak izate galdetzen denean, berriz gizonen presentzia altuagoa da. Eta ez da bakarrik talde sexu harreman gehiago izan dituztela, nahia ere nabariagoa da emakumeekin konparatuta. Badirudi sexu praktika ohikoetatik zenbat eta gehiago urrundu, emakumeak desagertzen doazela. Aurretik aipatu den arrazoi bat egon daiteke atzean, besteak beste; sexua maitasunarekin lotzearen ideia emakumeen aldetik gehiago, eta sexua gizonezkoen esparru “natural” bat kontsideratzen dela.

Aurreko ideiarene beste adierazle bat masturbazioarekin lotutako erantzunak dira. Emakumeak bere bikotea ez den beste pertsona batengan pentsatzea masturbatzen direnean, beste ideia honekin lotu daiteke; fideltasunaren ideiarekin. Berriz ere generoen sozializazioak (sexuarekiko kasu honetan) guztiz baldintzatzen ditu harreman sexualak emakume eta gizonengan.

Atal honen azken galderaren erantzunek, laburpen moduan erabili daiteke. Sexua maitasunik gabe ea eramangarria den. Erantzunetan nabari geratzen da, gure gizartean barneratuta dagoela oraindik biak lotuta doazela (emakumeetan gehiago). Amodio erromantikoaren idealaren osagaietako bat hauxe da, sexua eta maitasuna dena bat balitz bezala kontsideratzea. Dena den aipatu bezala, emakume eta gizonen artean, sexuarekiko erlazioa oso ezberdina da. Eta genero sozializazioaren eragin zuzena da ikusi den bezala atal osoan.

6 BALORAZIOAK

MIKEL OTXOTORENA FERNANDEZ
GENERO ETA MASKULINITATEETAN
KONTSULTOREA

4 Leialtasuna eta harremanak

Lehen bi galderen erantzunetan (G44 eta G45) adierazgarria honakoa. Lehen galderan emakume eta gizonen artean alde nabaririk ez baina urrungo galderan bai. Agian, 44. galderan galdera bitan banatu izan balitz (harreman sexuala alde batetik eta afektiboa bestetik), interesgarria litzake zein erantzun jasoko lirateke. Agian emakumeek harreman afektibo gehiago izango litzukete gizonen baino beraien harremanetatik kanpo?. Berriz ere, bereziki 45 galderan, gizonen “sexu behar” mandatua ageri da. Gainera onartuago dago, naiz eta beraien bikoteek ez jakin.

Desleiala izateko arrazoen artean atentzioa deitzen du portzentaje altu batek (%26,6) gizakia poligamoa dela baieztatzen duela. Ongo egongo litzake jakitea, erantzun hori 8

aukeratu dutenen artean, zein puntutaraino aitzakia izan daiteke ala arrazoitutako argudioa. Tentazioak, bigarren aukera nagusia bezala atera izanak, nolabait, azaltzen duena izan daiteke, gure gizartean maila sexual eta afektiboan harremantzeko dagoen eredu nagusia, bikote monogamoak direla. Baina hertsia izan daitekeen eredu bat dela eta momentu jakin batetan oso ahula izan daitekeena tentazioak tartean badaude. Ondo legoke jakitea nola definitzen dugun tentazio hitza.

Desleialtasunari lotuta, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak oso nabariak azaltzen dira berriz. Amodio erromantikoaren ideia leialtasun eta desleialtasunarekin lotuta argi azaltzen da. Emakumeak zorrotzagoak azaltzen dira. Bikotea irekitzeko aukera bezala proposatzeko baliatzeak atentzioa deitzen du. Dena den, aukera honen atzean arrazoi asko eta oso ezberdinak egon daitezke.

Desio sexualaren inguruan edo harreman sexualak izan bikotearen onspenarekin edo ezkutuan edo antzeko gaiak jorratzean genero mandatuak behin eta berriz azaltzen dira. Gizontasun jakin batek dituen osagai batzuk azaltzen dira; adibidez gizonak sexualki aktiboak izan beharrak. Hau da mandatu sozialak berriz ere presente daude.

Desleialtasuna noiz gertatzen den galdetzean, sexua da gehien lotzen dena desleialtasunarekin. Gizonen kasuan faktore gehiago hartzen dituzte kontutan emakumeak baino eta agian horregatik, beraien ustea bikoteak desleialak izan zaizkiela, adierazle gehiago hartzen dituztelako kontutan, emakumeekin konparatuta. Emakumeek konfiantza gehiago azaltzen dute bikoteekiko. Maitasun erromantikoaren ondorio izan daiteke?

Azken finean, atal honetan ere genero mandatuaren presentzia eta amodio erromantikoaren osagaiak behin eta berriz azaltzen dira erantzun askoren atzealdean; sexualki aktibo izan beharra gizonen aldetik, leialtasuna zein baloreekin lotzen den...

5 Datu Demografikoak

Gehiengo agnostiko eta ateo bezala definitzen dira. Baina gure gizartean erlijio kutsua oso presente agertzen da balore jakin batzuei lotuta. Logikoa bestalde, kontutan edukita erlijio kristau katolikoak izandako eta duen eragina. Ideologia patriarkalaren gotorleku indartsua da, kultura eta beste instituzio sozial askorekin batera.

Argi geratzen da ere gure gizartean pertsonen artean bizitzeko edo erlazonatzeko modu ohikoena bikotea dela. Baina beste aukera batzuk ere azaltzen dira, naiz eta gutxiengoa izan.

Hasieran esan bezala gizartea aldatzen doa eta horren adibide, joera sexualaz galdetzean, heterosexualitatea gehiengo izanda, beste aukera batzuen presentzia hor dago. Naiz eta jakin badakigu, LGTBIQfobia oso presente dagoela oraindik gure gizartean.

6 BALORAZIOAK



“KAIXO MAITIA” IKERKETAREN INGURUKO BILGUNE FEMINISTAREN IRAKURKETA

Amaia Zufia, Pili Alvarez Moles, Oihana Lopez, Irdoia Arraiza

Kokapen teorikoa: maitasun erromantiko eta heteroarauaren makineria

Hartu-emanak. Harreman intimo, sexualak, afektiboak, kidegokoak, militantziakoak, bizilagunen artekoak, elkartasunean oinarritutakoak. Eta harremantzera eramaten gaituzten maitasunak. Baina zer ote da maitasuna? Gizakiok elkarren arteko kontaktura, elkar harremantzera, zaintzera edota plazera trukatzera eramaten gaituen bultzada bada. Baina horrekin batera, testuinguruak baldintzatutako izaera hartzen duen eraikuntza soziokulturala, kode ideologikoz eta botere harremanez betetakoa, harreman mota guztiak zeharkatzen duen makineria, zapalkuntza sozialak sortu eta mantentzeko mekanismoak barnebiltzen dituena. Maitasuna eraikuntza bat den heinean ikasi egiten da, gure sozializazioan, modu inkonziante batean gehienetan, ez matematikak ikastolan ikasten diren moduan. Haatik, ikaspen hauek naturalizatu eta esenzializatzeko joera dugu, berezko egia baliran moduan.

Babestu gure proiektua BIDELAGUN FEMINISTA bilakatuz

Trukean EMARAUN aldizkaria jasoko duzu zuk emandako helbidean eta deskontuak izango dituzu gure produktu ezberdinetan.

Behin fitxa beteta Gudarien etorbidea z/g, Martin Ugalde Kultur parkea, 20140 Andoain helbidera, edo bulegoa@bilgunefeminista.eus emailera bidali eta ahal bezain arinen jarriko gara zurekin harremanetan. Eskerrik asko!

Izen/Abizenak

Helbidea Herria

K.P. Herraldea

E-posta

BAI, Euskal Herriko Bilgune Feministaren berriak jaso nahi ditut.

6 BALORAZIOAK



“KAIXO MAITIA” IKERKETAREN INGURUKO BILGUNE FEMINISTAREN IRAKURKETA

Amaia Zufia, Pili Alvarez Moles, Oihana Lopez, Irdoia Arraiza

Horrela, ipuin, irudi eta sinbolo, etxean ikusten dugun adibide, telesail, abesti, pelikula, jolas edota kalean aditzen ditugu komentarioek maitasunaren inguruko pentsamendu eta eredu oso bat eraikitzen du.

Gure mendebaldeko kulturak bultzatzen duen eredia **“Maitasun erromantikoa” eta “Heteroaraua”rena da, eta harremanak ordenatzeko erregimen ekonomiko, politiko eta soziala da gure harremanak ordenatu** eta maitasuna zer den eta zer ez den, eta nola edo norekin sentitu eta adierazi behar den ebazten duena. Emakume eta gizonen arteko harremanak, elkarbizitza, familia, hezkuntza, zaintza lanak eta enplegua antolatzekeo pieza klabea dugu, beraz, maitasunaren ideologia hegemoniko hau.

Dakigunez, gure jendartean pentsamolde zein harreman heterosexualak, familia nuklearrak osatzera bideratutako bikoteak, eremuz eremu bazterkeria egoeran dauden emakumeak, zaintza lanak dohain egiten dituzten ama eta emazteak edo murrizketa neoliberalak eta prekarietatea arintzeko koltxoi familiarak dira arau. **Jendarte heteropatriarkal eta kapitalista du izena guzti honek eta hura mantentzeko oso harreman eredu hertsia bultzatzen dira, esan bezala, maitasun erromantikoan oinarritutakoak.**

Hauek dira maitasun erromantikoan oinarritutako eta heteroaren ereduaren hainbat ezaugarri:

Heteroaraua eta harremanen mailakatzea: Harreman mota ezberdinak mailakatzen dira eta ororen gainera bikote heterosexualen baitan ematen den pasiozko maitasuna goratzen da, hain zuzen, familia nuklearra osatuko duten bikoteena. Beste harreman mota batzuk, esaterako, elkartasuna, lagun-artekoa edo bizilagunen artekoak maitasun goren hartatik banantzen dira. Honen baitan, desira eta sexualitatearen eraikitze, kontrol eta bideratze bat ematen da, oso aukera mugatuak bultzatuz:

6 BALORAZIOAK



“KAIXO MAITIA” IKERKETAREN INGURUKO BILGUNE FEMINISTAREN IRAKURKETA

Amaia Zufia, Pili Alvarez Moles, Oihana Lopez, Irdoia Arraiza

harreman heterosexualak, koitoa, genitalak. Heteroarau horretatik at geratzen diren bestelako harreman formulak, baztertu, zanpatu eta estigmatizatu egiten dira.

-Gizakion kontzepzioa: Gizakioi gabeziazko izakitzat definitzen zaigu, berezko hutsune bat izango bagenu. Hau beste pertsona batekin, pertsona bat eta bakar batekin, osatuko dugunaren ilusioa elikatzen da. Gure kontrakoa baino bateragarria izango den “gure beste partea” edo “laranja erdia”ren ideia zabaltzen da.

-Fusio totala: Maitasun harremanetan fusio eta sinbosia posible eta desiragarria dela zabaldu da. Gure burua ahanzi eta beste pertsona batekin guztiz nahastu, bestean galtzearen mezu alienanteak zabaldu dira, “zugabe ez naiz ezer” adibidez.

-Bikote-zentrismoa: Geroz eta indibidualizatuagoa planteatzen den jendarte honek sortzen duen isolamendu eta bakardadeari aurre egiteko, bikote harremanak bultzatzen dira, afektua, babesa edo beroa sentitzeko bide nagusizat. Zentzu horretan bizipoz eta zorionerako bide nagusi moduan ulertzen da bikotea. Horrela bizi proiektuetan bikotearen egitura erdigunean kokatu ohi dugu. Bikotean ez egotea, ordea, “bakarrik egotea” bezala ulertzen da maiz.

-Emozioak vs. Arrazoia: Gure jendarteak bi plano hauek bereizi izan ditu historikoki. Maitasuna emozioen eremuari guztiz lotu izan da, askotan irrazional, mistiko edo magikoa ere denari atxikiz, neurtu, arrazoitu, konszienteki landu edo kontrolatu ezin den indarraren moduan aurkeztuz. Hortik datoz, adibidez, atzera bueltarik ez duten “betirako fletxazoaren” fantasia adibidez.

-Kontrola: Maitasun erromantikoaren ideologia maitasuna jabetza terminoetan azaldu du, zeloak, kontrola edota menpekotasuna positibotzat hartuz, eta “zurea naiz” bezalako ideiak maitasun, konpromiso edota leialtasun keinutzat hartuz. Hori horrela, harreman itxi monogamikoak dira onuragarri eta natural moduan ulertzen direnak.

6 BALORAZIOAK



“KAIXO MAITIA” IKERKETAREN INGURUKO BILGUNE FEMINISTAREN IRAKURKETA

Amaia Zufia, Pili Alvarez Moles, Oihana Lopez, Irdoia Arraiza

-Maitasunak feminitatea eraikitzen du: Modernitatean gaur dugun genero sistemaren oinarriak ipintzen direnean, bizitza eremu pribatu eta publikoan bereizi, genero bakoitza horietako batekin lotuz. Orduan emakumea “maitatzeko izakitzat” definitu zen eta aitzakia horrekin lotu zen eremu pribatura, alegia, hiritartasun eskubiderik ez zeukan eremura (erreprodukzioa, naturara, besteentzako izatera...) bere zapalkuntza sozialari lotuz.

-Generoaren araberako desorekak: Generoaren araberako emozioen eraikuntzaren ondorioz, ezberdin bizi eta ezberdin ulertu ohi dugu maitasuna emakume eta gizonek, bakoitzaren sozializazioa ezberdina izan baita maitasunean: gizonezkoak botere soziala izateko heziak izan dira eta emakumeak maitasunean bere autoerrealizazioa bilatzeko. Emakumeon bizitzen erdigunea da maitasuna askotan, gai honetan aditu bihurtzen garelarik. Gizonezkoak aldiz, heziketa pasiboagoa daukate maitasunean eta sexuarekin lotuagoa. Ondorioz, harremanarekiko dedikazioan desoreka handiak eman ohi dira; askotan emakumezkoen inplikazio eta espektatibak handiagoak direlarik. Gainera, emakumeek maitasunean heziketa trinkoa jaso dutenez, maitasun erromantikoaren mito, ezaugarri eta mandatuak sakonago gorpuztu izan ditugu.

Ikerketa honen emaitzetan maitasun erromantikoarekin lotutako adierazle eta ondorio anitz atzematen ditugu.

6 BALORAZIOAK



“KAIXO MAITIA” IKERKETAREN INGURUKO BILGUNE FEMINISTAREN IRAKURKETA

Amaia Zufia, Pili Alvarez Moles, Oihana Lopez, Irdoia Arraiza

Metodologiaren inguruko oharra

-Klase ikuspegiaren gabezia: Maitasuna denok berdintzen gaituena, modu aske batean erabaki eta edozein oztopo gainditu dezakeen hori (baita klase sozial antagonikoen oztopoa ere) balitz aurkezten zaigu. Baina maitasun eredu hegemonikoak ondorio material nabariak ditu (familiar estaturako antolaketan, lan banaketan e.a.) eta orden ekonomiko baten sostengua da: kapitalismoa. Hau da, desoreka sozio-ekonomikoak mantendu eta birproduzitzeko pieza da. Hori horrela, ez dira berdinak klase baxuko edota aberats batek izango dituen baldintzak utopia erromantikoa garatzeko, ez batak eta besteak izango duen harreman afektiboaren bizipen edota fantasiak. Argi dago ez dela berdina gey exekutibo, heterosexual emakume etxeko langile, edo lesbiana migrantea, eta ezberdintasun hauek kontuan hartu beharko liriteke. Hau ikerketan jasotzea askoz ikuspegi sakonagoa eskeiniko liguke.

-“Harreman bat izatea” = bikotea?: Egoera afektiboaren atalean, harreman bat izatea galdetzen denean ez da zehazten zeri deitzen zaion hau. Aipatu berri dugun harremanak mailakatzearen joeraren eraginez, hau zehaztu ezean, ohikoena erantzuleek bikoteagatik galdetzen ari dela ulertzea da. Modu honetan, oharkabean, maitasun erromantikoaren oinarri nagusienetakoa indartuko du ikerketak, hau da, maitasun harremanak = bikotea ekuazioarena.

-Zer da harreman ireki bat izatea?: Ikerketan harreman irekiengatik galdetzen da, baina ez da azaltzen ez galdetzen zer ulertzen den harengatik: sexu harremanak beste pertsonekin edukitzea? Kontu pertsonal eta intimoak lagun ezberdinekin konpartitzea? Denboraren banaketan bikotea ez izatea beti lehentasuna? Hau jakintzat jotzen bada, harreman baten konpromisoa eta irekiera maila eskusibitate sexuala edo ez egoteak definitzen duen ikuspegia, hots, begirada monogamikoa, indartzen da.

“KAIXO MAITIA” IKERKETAREN INGURUKO BILGUNE FEMINISTAREN IRAKURKETA

Amaia Zufia, Pili Alvarez Moles, Oihana Lopez, Irdoia Arraiza

-Klase ikuspegiaren gabezia: Maitasuna denok berdintzen gaituena, modu aske batean erabaki eta edozein oztopo gainditu dezakeen hori (baita klase sozial antagonikoen oztopoa ere) balitz aurkezten zaigu. Baina maitasun eredu hegemonikoak ondorio material nabariak ditu (famiatik estaturako antolaketan, lan banaketan e.a.) eta orden ekonomiko baten sostengua da: kapitalismoa. Hau da, desoreka sozio-ekonomikoak mantendu eta birproduzitzeko pieza da. Hori horrela, ez dira berdinak klase baxuko edota aberats batek izango dituen baldintzak utopia erromantikoa garatzeko, ez batak eta besteak izango duen harreman afektiboen bizipen edota fantasiak. Argi dago ez dela berdina gey exekutibo, heterosexual emakume etxeko langile, edo lesbiana migrantea, eta ezberdintasun hauek kontuan hartu beharko lirateke. Hau ikerketan jasotzea askoz ikuspegi sakonagoa eskeiniko liguke.

-“Harreman bat izatea” = bikotea?: Egoera afektiboaren atalean, harreman bat izatea galdetzen denean ez da zehazten zeri deitzen zaion hau. Aipatu berri dugun harremanak mailakatzearen joeraren eraginez, hau zehaztu ezean, ohikoena erantzuleek bikoteagatik galdetzen ari dela ulertzea da. Modu honetan, oharkabean, maitasun erromantikoaren oinarri nagusienetakoa indartuko du ikerketak, hau da, maitasun harremanak = bikotea ekuazioarena.

-Zer da harreman ireki bat izatea?: Ikerketan harreman irekiengatik galdetzen da, baina ez da azaltzen ez galdetzen zer ulertzen den harengatik: sexu harremanak beste pertsonekin edukitzea? Kontu pertsonal eta intimoak lagun ezberdinekin konpartitzea? Denboraren banaketan bikotea ez izatea beti lehentasuna? Hau jakintzat jotzen bada, harreman baten konpromisoa eta irekiera maila eskusibitate sexuala edo ez egoteak definitzen duen ikuspegia, hots, begirada monogamikoa, indartzen da.

6 BALORAZIOAK



“KAIXO MAITIA” IKERKETAREN INGURUKO BILGUNE FEMINISTAREN IRAKURKETA

Amaia Zufia, Pili Alvarez Moles, Oihana Lopez, Irdoia Arraiza

-“**Sexu harremanak**” = **praktika genitalak edo koitoa**?: Zer dira harreman sexualak? zeri egiten dio erreferentzia inkestak? sarketa harremanei? genitalak tarteko dauden harremanei? Zeri erantzun dio jendeak sexu harremanak izatea galderari? benetan uste badugu sexu harremanak gorputzaren globaltasunarekin zerikusia duela galderak tranpa du. Galdera beste modu batez egingo bagenu hau da plazerra eta gorputzari buruz hitz egingo bagenu bestelako erantzun batzuk izango genituzke.

-**Sexualitatearen merkantilizazioa**: Bizitza sexualaren partean, asko galdetzen da kantitatea, maiztasuna eta zenbatekoagatik. Hau, modu batean, sexualitatean dagoen metaketa logika merkantilista indartzen du: “zenbat eta gehio, orduan eta arrakastatsuago”, “gehio hobe da”.

-**Aukera sexualaren kategoriak**: Metodologikoki, sexu aukeraren aldagaiari dagokionez, ez da azaltzen zergatik hautatu diren hiru kategoria horiek ikerketan: heterosexuala, homosexuala eta bisexuala. Identitate eta joera sexual anitz dagoen testuinguru batean, hau ongi kokatu izana garrantzitsua deritzogu. Bestetik, Homosexualen baitan interesgarria izango zen galdera guztietan gey eta lesbianen arteko ezberdintasuna azaltzea. Izan ere, gure ustez pertsona batek beste harreman batean zer bilatzen duen edo zeri ematen dion garrantzia sozializazio prozesu baten ondorio da eta ikusi dugunez, sozializazio prozesu oso ezberdinak jaso dute emakume eta gizonak emozioei lotuta. Hori ez bereiztean homosexualitatearen iruditegian gailentze maskulinoa bultzatu daiteke, egun emakumeek ere, lesbianek, bazterkeria egoera bizi baitute eremu honetan, are eta inbisibilizatuago edota estigmatizatuago egonik. Horregatik, lesbianen errealitatea azaleratzea ezinbestekoa iruditzen zaigu.

6 BALORAZIOAK



“KAIXO MAITIA” IKERKETAREN INGURUKO BILGUNE FEMINISTAREN IRAKURKETA

Amaia Zufia, Pili Alvarez Moles, Oihana Lopez, Irdoia Arraiza

Emaitzen inguruko iruzkinak

•1. Egoera afektiboa:

-**G1 / G12** : Eredu monogamikotik at kokatu daitezkeen harreman irekiak gutxiengoa dira, %7a, eta 29 urte baino gazteagoko lagun, gizon eta homosexualen perfilengatik batez ere.

Lehenik eta behin, jakin beharko genuke zer ulertzen dugun harreman irekiengatik. Sexu harremanak pertsona askorekin izatea dela ulertzen badugu, logikoa da gizonezkoek gehio atxikitzea formula honi, bere harremanetako ikaspena sexuarekin lotuagoa joan delako, eta sexual eta afektibitatea banantzeko joera handiagoa izan dezakete.

Bigarrenik, monogamiaren arauaren pisu handia sumatu dezakegu, hau baita familia den unitate ekonomikoaren berme handi bat: patrimonioaren herentzia, seme-alaben oinordetza, hipotekak, errentaren aitortza. Familia jabetza babestu eta transmititzeko taldea den heinean, jabetzan oinarritutako harreman monogamikoak bultzatzen dira. Monogamiaren eragina, heteroarauatik urruntzearekin batera, harreman homosexual eta bisexualetan, murrizten doala ikus dezakegu.

Bukatzeko, badirudi gazteek harreman ireki gehiago dituztela. Ondorioztatu dezakegu, aukera hau beti behin behineko egoeratzat ulertzen dela, gaztaroan baimendutako “desbideratzearen” moduan, helduaroan harreman itxietara berbideratuko dena.

- **G2 / G6 / G11**: Soilik bikotea duten elkarrizketatuen %10a ez dute bikotearekin jarraituko duenik etorkizunean eta soilik elkarrizketatu guztien %7a ez du bikoterik nahi etorkizunean. Euskaldun gehienek (%41,7) erlaziorik luzeenak 10 urte baino gehiago iraun du.

6 BALORAZIOAK



“KAIXO MAITIA” IKERKETAREN INGURUKO BILGUNE FEMINISTAREN IRAKURKETA

Amaia Zufia, Pili Alvarez Moles, Oihana Lopez, Irdoia Arraiza

Bizitza binaka antolatua dago (binakako indibidualismoaren aroa da), bikotearekin lotzen dugu elikadura afektiboa, bizipoza eta egonkortasun materiala (errenta aitorpena merkagoa da bikotekideekin, beharpenak hainbat zerbitzuetan, bajak hartzeko baimenak). Gainera, bakardadearen estigma zabala da. Beraz bikotearen behar inposatua oso hedatuta dago gure artean. Honekin lotuta, ikusi dezakegu pertsonen gehiengoak 10 urte baino gehiagoko harreman luzeak izan ditu. Hortaz, epe luzerako proiektu gisa bizitzen harremanak litekeena da aurreko lerroetan aipatutakoagatik baldintzatuta egotea.

Bikote harreman itxi batean dagoen eta etorkizunean egongo dela aurreikusten duen perfil nagusia hau da: emakumea, heterosexuala, 30-44 urte artekoa eta ezkondua. Baliteke, espektro honetan maitasun erromantikoaren ideologia errotuen egotea. Ikusi dugunez, ideologia hau emakumeengan eragin handiagoa dauka, jasotako mezu anitzengatik: beti norbait ondoan babesle izatea, salbatzen eta osatzen gaituen printze hori topatzea, lekuetara bakarrik ez joatea, amatasuna garatu ahal izateko familia osatzea.

Ikusi dezakegu, adina gora joan ahala bikotekidearekin jarraituko dutenaren ustea areagotzen dela. Ematen du, beraz, helduaroan bizi proiektua finkatzen goazen heinean bikote eta familiaren egitura geroz eta gehiago bilatzen goazela. Izan ere, zer suposatzen du egitura horretatik ateratzea? Zer arrisku material dakartza? Zer beste maitasun sare edota erreferente ditugu? Aldaketek eta “bakarrik zahartzearen” mamuak zelako eragin dauka guregan? Betirako gurekin egongo den “laranja erdiaren” fantasiak noraino zeharkatzen gaitu?

6 BALORAZIOAK



“KAIXO MAITIA” IKERKETAREN INGURUKO BILGUNE FEMINISTAREN IRAKURKETA

Amaia Zufia, Pili Alvarez Moles, Oihana Lopez, Irdoia Arraiza

-G7: Maiteminduak ez daudenen zoriontasun maila afektibo / sexuala txikiagoa da.

Baieztapen honetan ikusi dezakegu zoriontasun eta asebetetze maila afektiboa, pasiozko maitasunarekin lotzeko joera, hau da, maitasun erromantikoaren “harremanen mailakatzearen” eragina. Haatik, ez dugu elikadura afektibo-sexuala bestelako harreman mota edo sareetatik jasotzearekin lotzeko joera.

-G8: Nagusitutako baloreak: *Konfiantza eta zintzotasuna* (%72), *elkarrekiko maitasuna* (%68), *sexua* (%54) eta *adiskidetasuna-ongi pasatzea* (%51). *Babes ekonomikoa, ezkontzea, epe motzeko harreman bat eta gizartearen onarpena* gutxien baloratuak dira.

Hemen kontraesan bat hautematen dugu. Gure ustez askotan bikote baten baitan emandako harreman afektiboak kontratu ekonomiko bat ere badira, eta presio eta egitura sozialagatik oso baldintzatuta daude: egonkortasun ekonomikoa lortzea, besteen onarpena jasotzea, familia nuklearra osatzea e.a. Erantzuleek, ordea, ez dute desiragarritzat hartzen, ez baitator bat “erabaki aske” eta “erromanitizismoaren magiaren” paradigma modernoarekin. Horregatik, aukeratzeko momentuan, beste elementu batzuk lotzen dira maitasunarekin, beste errealitate batzuk ezkutatuz.

-G10: Euskaldunen zoriontasun maila afektiboaren batz bestekoa 6,9koa da, erdipurdi baino pixka bat hobea. Joerak erakusten du adinak gora joan ahala zoriontasun maila afektiboa behera doala. Ezkonduen zoriontasun maila baxuagoa dute bikotekidea (ezkondu gabe) dutenek baino.

Kontraesankorra dirudi, gehiengo batek etorkizunean bikote harreman itxi bat nahi izatea (Ikus G6 galdera), eta era beran, harreman itxi monogamiko baten ikur izan daitekeen ezkontzearen baitan adieraztea zoriontasun mailarik baxuena. Zergatik desiratzen dugu bada eredu hori?

Bestetik, ematen du harreman afektibo sexualen aferra gaztaro eta helduaro goiztiarraren kontua dela..

6 BALORAZIOAK



“KAIXO MAITIA” IKERKETAREN INGURUKO BILGUNE FEMINISTAREN IRAKURKETA

Amaia Zufia, Pili Alvarez Moles, Oihana Lopez, Irdoia Arraiza

Zoriontasun maila eremu honetan adinak gora egin ahala jaisten baita. Bali-teke maitasun erromantikoaren ideologiak, pelikulen edota publizitatearen bitartez, bultzatzen dituen “pasiozko” harreman horiek eta maitasun harremanen subjektu gazte eta lirain horiek zahartzaroan ez direla hain eramangarriak, eta eredu honen arauetatik urrundu heinean, zoriontasun sentipena jaitsi eta zailtasunak ugaritu egiten direla.

- **G14 / G15:** Erantzuleen gehiengoak (%58,6) dio harremana irekitzeko beharra sentitzekotan bikotekideari jakinaraziko liokeela. Euskaldunen jarrera harreman irekien inguruan nahiko positiboa da; nahiz eta ez aitortu, *guztion nahia dela* (%27,1) eta *bikotearen hedutasuna azaltzen* (%22,2) duelako ustea dago; baina, lehenik eta behin, *epe luzera eramangarriak ez direla* gorai-patzen da (%46,4)

Baieztapen honetan ondorioztatu dezakegu negoziazio, elkar ezagutza eta konfiantza, komunikazio konszienterako joera bat egon daitekeela, bai eta harreman afektiboak eraiki eta sortzeko prozesu konpartitutzat hartzekoa. Hau positibo moduan hartzen dugu. Galdera litzake, ordea, joera honek maitasun erromantikoaren eta heteroarauaren makinaria eraldatzeko gai da, edo berau mantentzeko erreforma litzateke? Eztabaida hor da.

45-64 adin tartekoak eta heterosexu-alak dira gehien onartzen dutenak ez luketela harreman ireki bat izateko aukera partekatuko bikotekidearekin. Ezkonduek eta denbora zibilean denbora asko daramatenek zailtasun gehiago dute bikotekidearekin harreman ireki bat adosteko.

Berriz ere, antza denez, heteroarauaren patroi idealetik are eta gehiago urrundu, are eta ohikoagoa da monogamiaren erreprodukzioa zalantzan jartzea.-

G15aren emaitza hauetan ikusi dezakegu, harremana irekitzearena elementu positiboekin lotzen dela elkarrizketatuen %49,3arengatik: desiragarria dela, heldutasuna azaltzen duela. Honek heteroarauaren pilaretako bat den monogamian pitzadura bat adierazi lezake.

6 BALORAZIOAK



“KAIXO MAITIA” IKERKETAREN INGURUKO BILGUNE FEMINISTAREN IRAKURKETA

Amaia Zufia, Pili Alvarez Moles, Oihana Lopez, Irdoia Arraiza

Baina edozein kasutan behin behineko bidetzat hartzen da, “epe luzera eramangarria ez delakoan”. Trantsizio moduan bizitako harreman ireki hauek, bestelako eredu bat bultzatzeko gaitasuna izan dezakete?

•2. Internet bidezko harremanak

-G16 / G20: 3tik batek eman dute inoiz izena harremanetarako webguneren batean: gehienbat gizonak, homosexuala, eta 45-64 urte bitartekoak. *Sexua* bilatzea lehenengo aukera da homosexual eta bisexualen artean. Gizonezkoen gehiengoak (%44,6) *sexurako gelditu* zela dio; emakumeen gehiengoak, ordea, *geratu baino ez zela egin* (%30,3) edota *epe luzeko harreman* (%25,1) bat izan zuela baieztatzen du. Homosexualen artean, *sexurako gelditu* zirenaren erantzuna nabarmenagoa da beste joera sexualeko erantzuleen artean baino.

Emaitzen arabera, gizonek eta emakumeek ez dute berdina bilatzen internetez harremanetarakoan, gizonek gehio sexua nahi dute, emakumeek beste gauza batzuk bilatzen dituzten bitartean. Homosexualek ere berdina diote, sexua bilatzen dute, baina kasu honetan berdinak izango da gay eta lesbianen erantzunak? Homosexualen baitan interesgarria izango zen galdera guztietan ezberdintasun hori egitea. Izan ere, gure ustez persona batek beste harreman batean zer bilatzen duen edo zeri ematen dion garrantzia sozializazio prozesu baten ondorio da. Gizonek ez dute desira sexual gehio, baizik eta hori gehio garatzear bultzatzen zaie, eta emakumeei aldiz sentibera eta emozionalagoak izatera, eta horregatik harremanetan adiskidetasunari edo afektuei garrantzi gehiago ematen diete. Aldiz, emakumeen sexualitatea tabu bat izaten jarraitzen du eta erreprodukzioa oso bideratua, inkesta ezberdinek baieztatzen diote berandu ezagutzen dugu gure alua, beranduago masturbatzen hasi e.a. Emakumeon sexualitatearen gaineko moral eta estigmaren efektua da hau.

6 BALORAZIOAK



“KAIXO MAITIA” IKERKETAREN INGURUKO BILGUNE FEMINISTAREN IRAKURKETA

Amaia Zufia, Pili Alvarez Moles, Oihana Lopez, Irdoia Arraiza

-G18 / G22 Erantzuleen gehiengoak (%89) pentsatzen du Internetek harremanak izaten / ligatzen laguntzen duela. Gizonezko gehiago dira (%91,2) baiezkoa ematen dutenak emakumezkoak (%86,4) baino. Bereziki, bisexualek uste dute(%98,4). Harremanetarako webguneetan izena eman ez dutenek deskonfiantza eta lotsarengatik dela nabarmentzen dute, bikotekidea jada dutenak albo batera utzita. Beldurra eta lotsa nabarmenagoa da emakumeen artean.

Adina aurrera, Internet eremu ohikoagotzat hartzen da harremanetarako, tabernak eta kalea bezala.

Gehiengoak uste du (89%) intenertek harremanak izaten/ligatzen laguntzen duela, baina soili %34 erabiltzen du. Deskonfiantza eta lotsa da arrazoi nagusia, baina beldurra eta lotsa nabarmenagoa da emakumeen artean. Emakume bezala sozializatua izateak, esparru honetan mugak eragiten ditu, feminitateak beldurra, inseguritate edo lotsaren ikaspen trinkoa ekartzen duelako.

Horrekin batera, ematen du heteroarauetik aldendu heinean, interneten bidezko harremanak presenteago daudela: bisexualek, homosexualek, pertsona ez gazteak (gogoratu dezagun heteroarauak erreprodukziora bideratutako gazteen arteko bikote harreman heterosexualak bultzatzen dituela). Honek adierazi lezake, espazio publiko ohikoa heteroarauarekin bat egiten duten ereduarentzat irisgarriagoa dela (plazak, tabernak, lantokia e.a.), bestelako ereduak askotan internet bidezko zirrikituak bilatzen dituztelarik bidea irekitzeko.

“KAIXO MAITIA” IKERKETAREN INGURUKO BILGUNE FEMINISTAREN IRAKURKETA

Amaia Zufia, Pili Alvarez Moles, Oihana Lopez, Irdoia Arraiza

•3. Bizitza sexuala:

-G24: Gizonek emakumeek baino bizitza sexual gehiago dute. Homosexualek harreman sexual gehiago dituzte:

Sexualitatea, plazera emakumeetan tabua, txarra, debekua, zikina... bezala eraikia izan da. Emakumeek modu askean sexualitatea bizitzeko debekuagatik zailtasun gehiago topatu ditzakegu. Heteronormak emakume sexualki pasiboak diren emakumeak bultzatzen ditu (sexualitatea bikote hetero, itxi eta herreman koitaletara bideratuz).

Homosexualen kasuan, pentsa daiteke eredu heteronormatiboaren baldintza zurrinak (bikotea, monogamia, elkarbizitza, ohea, koitoa...) apurtzen den heinean sexualitatea bizitzeko aukera gehiago ireki daitezkeela.

-G25: Gizonezko gehiago dago bikote sexual gehiagorekin emakumezko baino.

Emakumeek bere rolaekin bat egiteko eta emakume “onak” izateko bikote gutxi izan behar dituzte. Emakumeok dugun marra gorri bat “puta”ren estigma da. Bikote eta harreman gehiegi izateak oraindik ere emakumetasunean debeku bat da, emagaldutzearen adierazle, beraz ez dago feminitatearen rola berrantolatu.

-G26: Euskaldun gehienek (%33,5) astean behin edo bitan izaten dituzte sexu harremanak

Zer dira harreman sexualak? Ohar metodologikoetan esan bezala, galdera honek tranpa dauka eta galdera beste modu batez egingo bagenu, hau da, plazera eta gorputzari buruz hitz egingo bagenu bestelako erantzun batzuk izango genituzke.

Badirudi harreman heteronormatibotik aldentzen diren harreman afektibo irekietan ere harreman sexual gehigo daudela. Pentsa daiteke eredu heteronormatiboaren baldintza zurrinak apurtzen diren heinean sexualitatea bizitzeko aukera gehiago ireki daitezkeela.

-G28: Erantzun dutenen %50,3k astean hirutan edo gehiagotan nahiko lituzkete sexu harremanak izan eta astean behin baina gutxiago 10%ak:

6 BALORAZIOAK



“KAIXO MAITIA” IKERKETAREN INGURUKO BILGUNE FEMINISTAREN IRAKURKETA

Amaia Zufia, Pili Alvarez Moles, Oihana Lopez, Irdoia Arraiza

Harreman sexualen kantikatea, metaketa, arrakasta sozialarekin harreman dago. Honek sistema kapitalistaren logika jarraitutako sexu harremanen merkantilizazioa adierazten du. Hau da, kapitalaren akumulazioaren antzekoa sexu harremanei aplikatua.

-G29: Bikotekidedunek ezkonduak baina maizago dituzte sexu harremanak eta bi kolektibo hauek dira era berean harreman sexual gehien izaten dituztenak:

harreman heteronormatiboaren baitan ematen dira egun, oraindik, harreman sexualen gehiengoa, jendarte bera heteroaraua bultzatzen baitu eta, beraz, legitimatuago daude sexu harremanak eredu honen baitan.

-G31: Zoriontasun mailak gorantz egiten du 18 urtetatik hasi (6,1) eta 29 urte bitarte (7,1). Hortik aurrera gainbehera xume bat hasten da 37 urte bitarte (6,1) eta zerbait nabariagoa hortik aurrera 57 urte bitarte (4,4):

Sistema patriarkal eta kapitalistaren beste zutabe bat zera da: sexualitatea ugalketara bideratua, familia bat osatzeari bideratutakoak. Beraz, sexualitatea kodigo ugalkorretan irakurtzen badugu, gaztetasunarekin, hots, adin erreproduktiboarekin lotzen da. Horregatik ere harreman sexuala erabiltzen da koitoaz ari garenean batez ere, beste praktika batzuk ezkutatu. Aldiz, galdera beste modu batez formulatuko bagenu (adibidez: noiz sentitu duzu plazera zure gorputzean azkeneko aldiz?) agian ez lirarteke hainbeste desberdintasun egongo adinaren arabera. Plazerra eta gorputza adin tarte guztietan dago bitago.

-Bikotekiderik ez dutenek dira zoriontasun maila baxuena dutenak, %41ak 72 aitortu bai du baxua edo oso baxua dela euren :

Ikusi dugun moduan harreman afektiboaren partean, bikote izatea arrakasta soziala eta zoriontasunarekin lotzen da, jendarteak bultzatutako moldeetan sartzea suposatzen duen heinean. Honek, dudarik gabe, erantzuleen sentipen, bizipen eta ikerketan erantzundakoa baldintzatzen du.

6 BALORAZIOAK



“KAIXO MAITIA” IKERKETAREN INGURUKO BILGUNE FEMINISTAREN IRAKURKETA

Amaia Zufia, Pili Alvarez Moles, Oihana Lopez, Irdoia Arraiza

-Zoriontasun maila afektibo altuena dutenek ere zoriontasun maila sexual altuena dute (%67 altua edo oso altua) eta alderantziz.

Heteroarau eta maitasun erromantikoaren beste zutabe bat zera da, afektua eta sexualitatea eskutik emanda badoaz osoagoa, eta hobe izango dela zabaltzea, hare gehiago, bikote itxi baten baitan bada.

-G34: Sexuari dagokionez, gizonezkoak dira oso nabarmenki pornografia kontsumitzaile nagusiak, emakumezkoen %60ak ez du kontsumitzen: bi irakurketa:

Pornografia sozializazioan emakumeen praktiketarik kanpo dago, ez dago euren rola baten baitan pornografia kontsumitzea. Gainera, egungo pornografia eredu patriarkalaren baitan burutua izanik (hau da, emakumea objektu otzan eta pasibo moduan aurkeztu, eta sarketan zentratutako praktika falozentriko eta koitozentrikoak dira) agian emakumeek ez dute gustuko ez badu beraien desira, gogo zein beharrekin konektatzen.

-G43: Homosexual eta bisexualei eramangarriagoa zaie maitasunik gabeko sexua heterosexualei baino.

Heteroaraua kolokan jartzen duten harremanek, sexualitatea-maitasuna binomioa ere kolokan errezago jartzen da.

6 BALORAZIOAK

 euskal herriko
bilgune feministak

“KAIXO MAITIA” IKERKETAREN INGURUKO BILGUNE FEMINISTAREN IRAKURKETA

Amaia Zufia, Pili Alvarez Moles, Oihana Lopez, Irdoia Arraiza

•4. Lehialtasuna eta harremanak

-G44 / G46/ G50 / G51: Erantzuleen %91ak onartzen du noizbait izan duela bikotekidea ez den norbaitekin desio sexuala. Bikotekide dutenen %87ak onartzen du noizbait sentitu dela bikotekidea ez den norbaitek bereziki erakarria. %42 ak izan du inoiz –egungo edo aurreko –bere bikotekideak jakin edo adostu gabe harreman sexualik beste pertsona batekin. Erantzun dutenen erdiak desleiala izateko arrazoi nagusizat dute bikotekidearekiko ilusio edo erakarmen falta edo eta aukera suertatzeak. Erantzun dutenen 4tik batek uste du gizakia berez dela poligamoa, denon desira dela.

Poligamoak gara? Gehiengoak pertsona ezberdinekiko desira sexuala sentitu arren, soilik %25ak uste du gizakia poligamoa dela, hori dela denon desira. Eta elkarrizketatuen %7a soilik harreman irekia dauka, hau da, eramaten du aurrera zintzoki adostutako praktika poligamo bat. Bestalde, ezkonduak dauden pertsonen beste egoera zibiletan daudenean baino gehiago lehenesten dute *sexua* harremantzeko webguneetan; hauen artean *maitalea* topatzeko nahia ere goraipa daiteke.

Honek agerian uzten du kontraesanetan bizi garela, desio batzuk izan arren, gero ez ditugula praktikara eramaten, edo egiten dugunean, ezkutuan izaten dela. Heteroarauaren arau nagusi bat monogamia da eta bikotekidearekiko leialtasuna eskusibitate sexualaren arabera neurtzen da. Hortik ateratzea txarra edo ez normala dela uste dugu oraindik, edo behintzat ez daude garatuta oro har kontu hauek kudeatzeko tresnak eta komunikazio egokia bikoteengan

“KAIXO MAITIA” IKERKETAREN INGURUKO BILGUNE FEMINISTAREN IRAKURKETA

Amaia Zufia, Pili Alvarez Moles, Oihana Lopez, Irdoia Arraiza

-G51 / G52: Gizonezkoen %42ak onartzen du etengabe edo askotan duela desio sexuala; emakumezkoen kasuan, aldiz, %16ak. Era berean, emakumezkoen %12ak dio ez duela inoiz desio sexualik izan; gizonezkoen kasuan, horien %5,5ak erantzun du hori. Alde nabaria dago ere joera sexualaren arabera; Homosexualen %50ak bere bikotekidea ez den norbaitekiko desio sexuala etengabe edo askotan sentitzen duela dio, heterosexualen kasuan %27a.

Erantzuleen gehiengoari (%51) adostutako arau batzuen barruan gustatuko litzaieke bikotekidea ez den norbaitekin harreman sexualak izatea. Gizonezkoen %60,6ak nahiko lituzke harreman sexual adostuak izan, emakumeen %41aren aurrean. Heterosexualekin alderatuta (%46,6), bisexual eta homosexualen ehuneko altuago batek (%80,4; %68,4) nahiko luke.

Esan bezala, desio sexuala generoaren arabera eraikitzen da. Genero aldeko ezberdintasun hau ez dugu uste denik gizonezkoek desira sexual gehiago dutelako edo hori bideratzen duen sen berezi bat dutelako. Guztiok gara izaki sexuatuak jaiotzetik hil arte eta guztiok garatu dezakegu desira sexuala gehio edo gutxiago. Baina argi dago, gizonezkoek desio hori gehio garatzera bultzatzen zaiela eta ondorioz naturaltasun gehiagorekin onartzen dutela beraien desioa (ze berez gero praktikan %42a da desleiala, baina ez dago alderik geero aldetik).

Bestale, homosexual eta bisexualek oraindik gehio aitortzen dute bikotea ez den norbaitekiko desira sexual handia dutela eta bikotea ez den norbaitekin praktika sexualak izatea gustatuko litzaiekeela. Arrazoi posible bat zera liteke, praktika sexual ez normatiboak izatean, irekiagoa egotea heteronormatik ateratzen diren beste praktika batzuk onartzera eta balioan jartzera.

“KAIXO MAITIA” IKERKETAREN INGURUKO BILGUNE FEMINISTAREN IRAKURKETA

Amaia Zufia, Pili Alvarez Moles, Oihana Lopez, Irdoia Arraiza

Eta heteroarauaren hurbiltze-aldentze logika honetatik azaldu daitezke ere hurrengo datuak: Bisexualak dira (%48,6), homosexual eta heterosexualekin alderatuta (%35,9; %21,2), desleialtasuna aitortuko luketen gehienak. Egoera zibilarri dagokionez, ezkonduen %39ak (egoera zibilen artean ehunekorik altuena) dio desleialtasuna ez lukeela onartuko. Bestalde, bisexualen %70,8ak eta homosexualen %62,4ak dio onartuko lukeela bikotekideak beste norbaitekin harreman sexualak izatea, elkarrekin hitz egin ondoren. Heterosexualen kasuan, ordea, batazbestekoa jaitzi eta %38,4ak baietz erantzun du.

-G47 / G48 / G57: Gehiengo nagusi batek jaki nahiko luke bere bikotekidearen desleialtasuna (%73) Hau batez ere gazteen artean ematen da (%90) eta adinean gora egin ahala jakinmina gutxitzen da.

Bikotekideak maitalea duen %88ak jaki nahiko luke, desleialtasun une bateko kasuan baina 15 puntu gehiago. Adin tarte guztietan gertatzen da hau antzeko neurri batean.

Galdetutakoen %65ak ez dio inoiz galdetu bere bikotekideari berarekin desleiala izan den, %35ak bai. Emakumeek (%38) gehiago galdetzen dute hau gizonen baino (%31) Gutxien galdetzen dutenak homosexualak dira (%22) eta erlazio irekia dutenak (%40)

Zelan komunikatzen gara gure harremanetan? Gehiengoak jaki nahi du bere bikotea desleiala izan den, baina gehiengoak ez dio inoiz galdetu. Honek agerian uzten du bikoteen arteko komunikazio falta gai hauen inguruan. Zergatik? Komunikazio arazoak ditugu bikote harremanetan orokorrean? Ala bereziki gai honengatik da? Zeri diogu beldurra? Berez, desleialtasun batez enteratzeak ez du ekartzen zuzenean ondorio bezala harremana uztea, izan ere, desleialtasunaren aurrean galdetutakoen %37ak harremana bertan behera utziko luke eta %22ak harremana irekitzea proposatuko luke. Beraz bikotean negoziatzeko, elkar ulertzeko eta komunikatzeko bideak garatzeko erronka daukagula ematen du orokorrean.

6 BALORAZIOAK

 euskal herriko
bilgune feminista

“KAIXO MAITIA” IKERKETAREN INGURUKO BILGUNE FEMINISTAREN IRAKURKETA

Amaia Zufia, Pili Alvarez Moles, Oihana Lopez, Irdoia Arraiza

Bestalde, heterosexualak ez diren artean, komunikazio gehiago dagoela ikusten da: Bisexualak dira bikotekidea desleiala izan dela dakitela esaten duten gehienak (%16,7, heterosexualen %8,4aren aurrean). Joerari jarraituta, homosexualak dira bikotekidea inoiz desleiala ez dela dakitela esaten duten gehienak (%21,5, homosexualen %11,1aren aldean). Heteroarautik aldentzen diren ereduak komunikatzeko eta konpromisoa birpentsatzeko formulak asmatzen ari dira?

Babestu gure proiektua BIDELAGUN FEMINISTA bilakatuz

Trukean EMARAUN aldizkaria jasoko duzu zuk emandako helbidean eta deskontuak izango dituzu gure produktu ezberdinetan.

Behin fitxa beteta Gudarien etorbidea z/g, Martin Ugalde Kultur parkea, 20140 Andoain helbidera, edo bulegoa@bilgunefeminista.eus emailera bidali eta ahal bezain arinen jarriko gara zurekin harremanetan. Eskerrik asko!

Izen/Abizenak

Helbidea Herria

K.P. Herraldea

E-posta

BAI, Euskal Herriko Bilgune Feministaren berriak jaso nahi ditut.

6 BALORAZIOAK



Inkestaren datuak irakurrita, esan dezakegu bikote harremanak garrantzia dutela euskal herritarren bizitzan. Emakume eta gizon gehienak bikote harremanean bizi dira edo bikote harremana edukitzea nahi dute.

Bikote harremana konfiantzan oinarrituta egotea nahi dugu eta elkarrekin ondo pasatzea bilatzen dugu.

Ongi dago jakitea zer nahi dugun harreman batean gaudenean, hala ere datu hauek ikusita eta kontsultan ikusten dugunarekin lotuta, esan dezakegu geroz eta gehiago exijitzen diogu harreman bati, eta inkestak dioen moduan zorientasuna helburua izanik, garrantzitsua da konturatzea bikoteak ezin dituela bizitzako esparru guztiak elikatu, hau da, bikotearekin ongi pasatzea ongi dago, baina bikoteaz aparte gure bizitza elikatzea, eta gure kabuz disfrutatzen ikasteak ere bikote harremana elikatzeaz gain gure buruaren eta gure zorientasunaren jabe egiten gaitu. Horrela bikote harremanari eskatzen dioguna orekatu daiteke norberak beste bide batzuk eraikiz (lagunak, norberaren aktibitateak). Honetaz gain, jakin behar dugu, bikote harreman bateko konfiantza edo bikoterarekin ongi pasatzea, ez direla ezer egin gabe agertzen. Harreman guztiak elikatu egin behar dira, eraiki eta hori partaide guztien ardura da. Bikoteari, harremanari, gauza asko exijitzen dizkiogu, eta eskaerak egiterakoan zenbatetan galdetu diogu geure buruari eskatzen duguna nola eskeintzen dugun?

6 BALORAZIOAK



Erich Frommek esan zuen moduan “ Inoiz ez duzu zure bizitzako amorea bilatuko, maitasuna ez baita topatzen eraikitzen baizik”

Datuen irakurketa egiten, bikotea izateko moduan ikuspegi ezberdinak agertzen diren arren (bikote irekiak..) eta honako hauek onartzen badira ere, praktikan eramateko garaian zailtasunak agertzen dira, ez dira hain eramangarriak ikusten. Horrela, esan genezake inportantea dela eredu ezberdinak ikusten direla baieztatzea , eredu ezberdinak onartzen ditugula ikustea, horrela gizartean guztion aukerak ikus daitezten, mailak ezarri gabe. Ondorioz, bakoitzak gehien egokitzen zaion eredua aukeratu dezake, inportanteena hori bai bikote bakoitzak bere harremanari forma ematerakoan bikotekideen emozioei entzunez, elkarri zainduz nahi duten eredua eraikitzea. Harreman sexualak baloratzerakoan, esango dugu kontzeptuak oraindik nahasten direla, edo harreman sexualetaz hitz egiterakoan harreman genitalak soilik hartzen direla kontutan, hau adibidez astean zenbatetan nahi dugun harreman sexualak aipatzerakoan ikusten da, ez dugu uste hor muxuak laztanak, elkarri esan al dizkiogun hitz goxoak, eta besarkadak kontutan hartzen direnik, zaila baita hau kopuruan kontabilizatzen.

Inkestaren emaitzen arabera praktika sexualei dagokionez, gure nahia ez dator bat dugunarekin, eta uste dugu honetan askotan baduela garrantzia gizartean hedatuta dagoen eredua.

6 BALORAZIOAK



Komunikabide eta interneten gehien hedatua dagoen eredu koitozentrista, gaztea, eta kantitatean oinarrituta da, honen eraginez etengabe frustazio handia izaten dugu, gure bizitza sexuala ez datorrelako bat uste dugunarekin, eta hor gure desioak, eta gure gorputzak eskeintzen dizkigun desioak ezagutu beharrean etengabe gizartetik datorren ereduarekin konparatzen gara. Hau da gure lanean ikusten duguna, eta emaitzak ere horrela agertzen dutela esan daiteke.

Zorionez datuen arabera estereotipoak puskatzen hasi gaitzke eta emakumeak gizonen moduan izaki desiragarriak direla argi bagenuen ere, inkestaren datuetan konfirmatu dezakegu. Horrela ere gertatzen da emakumeen masturbatzearekin.

Ligatzeko moduak era zabaltzen ari dira, eta modu berriak inkorporatzen ari gara, nahiz eta ikusten da oraindik ere aurreiritziak ez dutela laguntzen ligatzeko bideak aukeratzekoan, horrela internet baliogarri ikusten den arren, ez da hain erabilia batez ere harreman heterosexuak dituztenen artean.

Argi dago harremanak sexualak, bikote harremanak nahi izatekotan ezinbestekoa dela ligatzen saiatzea, ea behingoz zabaltzen dugun, gure desioak agertzea, besteengana hurbiltzea, ligatu nahi dugula agertzea, ez duela gure buruaren balioa kentzen. Harreman sexualak, nahi ditugu, bikotea nahi dugu, baina honetan esfuertzoa jartzea zerbait negatibo bezela bizitzen dugu, ondorioz gure nahia eta desioak argi eta garbi azaldu behar dugunean hau kosta egiten zaigu.

Bizitzan zein beste esparrutan lortzen dira gauzak gogoia eta esfuertzu gabe?

6 BALORAZIOAK



Kolon Pasealekua 50, — 20.002 Donostia

Mail: info@gehitu.org

Tel./Faxa: 943 468 516

Informazioa eta Laguntza
943 45 17 22

www.gehitu.org

Gehituk, Euskal Herriko gay, lesbiana, bisexual eta transexualen elkarteak, Kaixomaitia, Euskaldunen harremanetarako guneak eginiko Euskal herritarren harreman sexual eta afektibo buruzko online inkesta anonimoaren LGTBI kolektiboari dagokien emaitzen azterketa beregan hartu du, bertatik atera daitezken hausnarketan interpretazioa bat izatearren.

Lehenik eta behin Gehitutik Kaixomaitiaren lana goraiatu nahi da, izan ere, Euskal herritarren harreman sexual eta afektibo buruzko online inkesta anonimoa eta ezagutzeko joerei buruz egiten den lehenetariko inkesta dugu honako hau, eta azpimarragarria iruditzen zaigu mota honetako inkesten beharra euskal gizartearen portaerei buruz berri izateko, arlo honen lanketa eta azterketa izanik euskal gizarteak urteetan izan duen hutsuneetako bat, LGTBI kolektiboarena barne.

Bestetik, aipatu beharrekoa iruditzen zaigu horren ikuspuntu orokorra eman nahi zaion ikerketa batetik oso zaila eta arriskutsua zaigula ondorioak ateratzea, izan ere, eta inkestan aipatzen den moduan %8,9a da bakarrik parte-hartzen duten pertsona homosexualen kopurua, alegia, inkestatuen 1292 pertsonetatik 115 pertsona inguruk. Horietatik 40 bat emakume eta Kopuru hori ez zaigu nahiko iruditzen lagin osatu bat egiteko. Horretaz gain LGTB kolektiboan ezinbesteko aldagaiak ez direla neurtu edo gurutzatu kontsideratzen da, adibidez, parte-hartzaileen adina edo bizitokiaren biztanle kopurua (herri txiki edo hiri handi batean bizi diren adibidez). Hala eta guztiz ere interes handikoa den gertakari bat inkesta honetan argi agertzen dela iruditzen zaigu, interneteko espazio ezberdinen erabilera geroz eta handiagoa jendea ezagutzeko. Aspaldi entzunak dira LGTB kolektiboaren zailtasunak gizarteko esparru ezberdinetan orientazio sexual bera duten pertsonak topatzeko garaian.

6 BALORAZIOAK



Kolon Pasealekua 50, — 20.002 Donostia

Mail: info@gehitu.org

Tel./Faxa: 943 468 516

Informazioa eta Laguntza
943 45 17 22

www.gehitu.org

Azken hamarkadetako teknologiaren garapen azkarrak eta konkretuki, internetaren irisgarritasun eta jendea ezagutzeko web orri berrien sorrerak esparru honetan ere izan du eragina, eta argi ikusten da hori LGTBI kolektiboan, non interneten duen presentzia ohikoa den eta naturaltasun guztiz ematen den. Beraz arlo honetan lan handia egiteko dagoela iruditzen zaigu, gainontzekoak alde batera utzi gabe.

Azkenik aipatzeko iruditzen zaigu kaixomaitiak Gehiturekin izan duen hurbiltasuna eskertu beharrekoa dela LGTBI kolektiboari dagokion esparrua lantzerakoan. Nahiz eta ezin izan dugun ondorio zehatzik atera jarrerak berak etorkizunean, esparru honi buruzko lankidetzak sakonagoak egiteko beharra erakusten duela iruditzen zaigu eta horren aurrean gure prestutasun guztia erakutsi nahi diogu.

Gehitu Elkarteak





kaixomaitia

Idea eta ekimena:
Kaixomaitia.eus

Koordinatzailea:
Iñigo Arandia Galarraga
@iarandia

**Galdetegiaren diseinua, zabalkundea, erantzunen
jasotze eta emaitzen txostenaren garapena**
Aida Solores eta Iñigo Arandia

Komunikazioa eta sustapena:
Aida Solores Ortega
@AidaSolores

Bideoaren edizioa:
Ainhoa Anduaga
@AinhoaAC

**Inkestaren aholkularitza teknikoa, emaitzen
arazketa eta ustiaketa:**
Aztiker Soziologia Ikerguna
@Aztiker

Emaitzen balorazioak:
Euskal Herriko Bilgune Feminista (@ehbfeminista)
Gehitu (@Gehitu_Elkartea)
Harremanak.eus (@harremanak_Elk)
Mikel Otxotorena Fernandez

Donostian, 2016ko ekainaren 9an



by kaixomaitia.eus